


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Doktorego tesia

**Molecular recognition of the HIV-1
neutralizing MPER epitope reconstituted
in membranes. Contribution of lipid
composition and transmembrane
domain inclusion.**

Johana Torralba Iturbe

2022

Zuzendariak: José Luis Nieva Escandón eta

Beatriz Apellániz Unzalu

Biofisika Institutua (CSIC/EHU)
Biokimika eta Biologia Molekularra saila

Acknowledgements

The present thesis was performed at Instituto Biofisika (CSIC, UPV/EHU) under the supervision of Drs. José Luis Nieva and Beatriz Apellániz. The work was supported by the Basque Government (IT1196-19), the Spanish MINECO (BIO2015-64421-R (MINECO/AEI/FEDER, UE)) and MCIU (RTI2018-095624-B-C21 (MCIU/AEI/FEDER, UE)). The author was a recipient of a predoctoral fellowship from the Basque Government.

Aitorpena

Tesi hau Biofisika Institutuan (CSIC, UPV/EHU) burutua izan da, José Luis Nieva eta Beatriz Apellániz Dk.-en zuzendaritzapean. Lanak Eusko Jurlaritzaren (IT1196-19) Espainiako Gobernuaren MINECO (BIO2015-64421-R (MINECO/AEI/FEDER, UE)) eta MCIU (RTI2018-095624-B-C21 (MCIU/AEI/FEDER, UE)) diru-laguntzak jaso ditu. Autorea Eusko Jurlaritzaren ikertzaile ez-doktoreen prestakuntzarako doktoratu aurreko laguntzaren onuraduna izan da.

AUTOREAREN ARGITALPENAK

- i) Christophe Caillat, Delphine Guilligay, **Johana Torralba**, Nikolas Friedrich, Jose L Nieva, Alexandra Trkola, Christophe J Chipot, François L Dehez, Winfried Weissenhorn (2021). Structure of HIV-1 gp41 with its membrane anchors targeted by neutralizing antibodies. *eLife*; 10:e65005. doi:10.7554/eLife.65005
- ii) Igor de la Arada *, **Johana Torralba** *, Igor Tascón, Adai Colom, Iban Ubarretxena-Belandia, José L R Arrondo, Beatriz Apellániz, José L Nieva. Conformational plasticity underlies membrane fusion induced by an HIV sequence juxtaposed to the lipid envelope (2021). *Sci Rep.*; 11(1):1278. doi:10.1038/s41598-020-80156-w
- iii) **Johana Torralba**, Igor de la Arada, Pablo Carravilla, Sara Insausti, Edurne Rujas, Eneko Largo, Christian Eggeling, José L R Arrondo, Beatriz Apellániz, José L Nieva (2020). Cholesterol Constrains the Antigenic Configuration of the Membrane-Proximal Neutralizing HIV-1 Epitope. *ACS Infect Dis.*; 6(8):2155-2168. doi:10.1021/acsinfectdis.0c00243
- iv) Victoria Oakes, **Johana Torralba**, Edurne Rujas, José L Nieva, Carmen Domene, Beatriz Apellaniz. Exposure of the HIV-1 broadly neutralizing antibody 10E8 MPER epitope on the membrane surface by gp41 transmembrane domain scaffolds (2018). *BBA-Biomembranes*; 1860(6):1259-1271. doi:10.1016/j.bbamem.2018.02.019
- v) Eneko Largo, Douglas P Gladue, **Johana Torralba**, Vicente M Aguilera, Antonio Alcaraz, Manuel V Borca, José L Nieva. Mutation-induced changes of transmembrane pore size revealed by combined ion-channel conductance and single vesicle permeabilization analyses (2018). *BBA – Biomembranes*; 1860(5):1015-1021. doi:10.1016/j.bbamem.2018.01.012
- vi) Pablo Carravilla, Antonio Cruz, Itziar Martin-Ugarte, Itziar R Oar-Arteta, **Johana Torralba**, Beatriz Apellaniz, Jesús Pérez-Gil, José Requejo-Isidro, Nerea Huarte, José L Nieva. Effects of HIV-1 gp41-Derived Virucidal Peptides on Virus-like Lipid Membranes (2017). *Biophys J.*;113(6):1301-1310. doi:10.1016/j.bpj.2017.06.061

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
1.1	1 MOTAKO GIZA IMMUNOESKASIAREN BIRUSA	4
1.1.1.	GIB-1aren egitura eta infekzio zikloa	4
1.1.2.	Gainazaleko glikoproteina (Env), txertoen garapenerako itua	9
1.2	ENV-EN OINARRITUTAKO IMMUNOGENOAK	15
1.3	MPER EPITOPOA	19
1.3.1.	MPERen aldakortasun konformazionala	20
1.3.2.	MPER domeinura zuzendutako bnAb-ak	22
1.3.3.	MPER domeinuan oinarritutako txertoen saiakerak	25
1.4	HELBURU NAGUSIAK	27
1.4.1.	Helburu zehatzak.....	27
2.	KAPITULUA.....	29
	30
2.	TEKNIKA ESPERIMENTALAK	31
2.1	LIPIDOETAN OINARRITUTAKO SISTEMA EREDUAK.....	31
2.1.1.	Liposomen ekoizpena.....	31
2.1.2.	Lipido kontzentrazioaren determinazioa.....	36
2.1.3.	Peptidoen txertaketa besikuletan: sakarosa gradiente bidezko LPFen flotazioa 38	
2.1.4.	Besikulen tamainaren zehaztapena DLS bitartez.....	39
2.2	FAB-EN ADIERAZPENA, PURIFIKAZIOA ETA MARKAKETA	41
2.2.1.	Fab-en adierazpen eta purifikazioa bakterio zeluletan	41
2.2.2.	Proteinen zuzendutako markaketa.....	44
2.3	TEKNIKA ESTRUKTURALAK.....	46
2.3.1.	Dikroismo zirkularreko espektroskopia (DC)	46
2.3.2.	Espektroskopia infragorria (IR)	48
2.4	FLUORESZENTZIA OINARRITUTAKO MIKROSKOPIA AURRERATUA	50
2.4.1.	Mikroskopia konfokala	50

2.5	MIKROSKOPIA ELEKTRONIKOA	58
2.6	INDAR ATOMIKOKO MIKROSKOPIOA	59
2.6.1.	Indar-espektroskopia	62
2.6.2.	Molekula bakarreko FS.....	63
2.7	BIOLOGIA ZELULARRA: ZELULEN INFEKZIO ETA BIRUSEN NEUTRALIZAZIO SAIOAK.....	67
2.7.1.	Pseudobirusen ekoizpena.....	68
2.7.2.	Neutralizazio saioa	70
2.8	TEKNIKA IMMUNOLOGIKOAK	71
2.8.1.	Untxien immunizazioa.....	71
2.8.2.	ELISA ez-zuzena	73
3.	RESULTS.....	77
3.1	Conformational plasticity underlies membrane fusion induced by an HIV sequence juxtaposed to the lipid envelope	77
3.1.1.	Introduction.....	78
3.1.2.	Methods.....	80
3.1.3.	Results	83
3.1.4.	Discussion	93
	98
3.2	Cholesterol constrains the antigenic configuration of the membrane-proximal neutralizing HIV-1 epitope	99
3.2.1.	Introduction.....	100
3.2.2.	Methods.....	102
3.2.3.	Results	106
3.2.4.	Discussion	117
	122
3.3	Antibody accessibility to the nearly-pan-neutralizing HIV-1 MPER epitope modulated by the length of the Env glycoprotein membrane-spanning scaffold and the bilayer thickness.....	123
3.3.1.	Introduction.....	124

3.3.2.	Methods.....	125
3.3.3.	Results	127
3.3.4.	Discussion	135
	140
3.4	Anchoring of HIV-1 10E8 epitope through the transmembrane domain reverses MPER effects on the mechanical stability of the lipid bilayer and augments antibody binding affinity. Implications for liposome-based MPER vaccine design.	141
3.4.1.	Introduction.....	142
3.4.2.	Methods.....	143
3.4.3.	Results	146
3.4.4.	Discussion	157
4.	EZTABAIDA OROKORRA	163
4.1	ONDORIOA.....	167

LABURDUREN ETA SINBOLOEN ZERRENDA

2D-COS	Two-dimensional correlation spectroscopy
6-HB	6-helix bundle / 6-helize sorta
Adv	Adenovirus / Adenobirusa
AIDS	Acquired Immune Deficiency Syndrome
AFM	Atomic force microscopy / Indar atomikoko mikroskopia
APDMES	3-aminopropyldimethylethoxysilane
ART	Antiretroviral therapy / Erretrobirusen kontrako tratamendua
ASA	Accessible surface area
ATR	Attenuated Total Reflectance
AZT	Azidothymidine / Azidotimidina
bnAb	Broadly neutralizing antibody / Espekto zabaleko antigorputz neutralizatzailea
BSA	Bovine serum albumin / Behi gazur albumina
BCR	B-cell receptor / B-zelulen hartzailea
CA	Capsid / Kapsidea
CCD	Charge-coupled device
CD	Circular dichroism / Dikroismo zirkularra
CD4bs	CD4-binding site / CD4-ren batuketa gunea
CD4mc	CD4-mimetic compound
CDC	Center for disease Control and Prevention / Amerikako gaixotasunen kontrolerako zentroa
CDRH3	Third complementarity determining region of the heavy chain / Osagarritasuna determinatzen duen esualdea
Chol	Cholesterol / Kolesterola
C-MPER	C-terminal sequence of the MPER / C-muturreko MPER sekuentzia


Cryo-EM	Cryogenic electron microscopy / Kriomikroskopia elektronikoa
CT	Cytoplasmic tail / Isats zitoplasmatikoa
CTL	Control / Kontrola
D _c	Hydrocarbon acyl chain thickness
D _{HH}	Headgroup to headgroup distance
DHSM	Dihydrosphingomyelin
diPC	Diacyl PC
DLS	Dynamic light scattering / Argiaren sakabanatze teknika
DMEM	Dulbecco's modified Eagle's medium / Mediaoa
DMSO	Dimethylsulfoxide
DTT	Dithiothreitol
ELISA	Enzyme linked immunosorbent assay
EM	Electron microscopy / Mikroskopia elektronikoa
Env	Envelope glycoprotein / Bildukiko glikoproteina
eOD	Engineered outer domain
ER	Endoplasmic reticulum / Erretikulu endoplasmatikoa
etOH	Ethanol / Etanola
Fab	Fragment, antigen binding / Antigenoa batzen duen fragmentua
Fb	Breakthrough force
FDA	Food and drug administration / Elikagai eta botiken administrazioa
FP	Fusion peptide / Fusio peptidoa
FS	Force spectroscopy / Indar espektroskopia
GIB	Giza immunoeskasiaren birusa
GFP	Green fluorescent protein / Proteina fluoresezente berdea
Gp120	HIV glycoprotein 120 kDa (surface subunit) / GIB 120 kDa glikoproteina (gainazaleko azpiunitatea)

Gp41	HIV glycoprotein 41 kDa (transmembrane subunit) / GIB 41 kDa glikoproteina (transmintz azpiunitatea)
GT	Germline targeting / Lerro germinalera zuzendutako
GUV	Giant unilamellar vesicles / Lamela bakarreko besikula erraldoiak
HAART	Highly active antiretroviral therapy / Terapia anti-erretobiral oso aktiboa
HC	Heavy chain / Kate astuna
HEK293 cells	Human embryonic kidney 293 cells / Giza enbrioia-aren giltzurrun 293 zelulak
HEPES	4-(2-hydroxyethyl)piperazine-1-ethanesulfonic acid
HFIP	1,1,1,3,3,3-hexafluoro-2-propanol
HIES	Hartutako immunoeskasiaren sindromea
HIV	Human immunodeficiency virus
HR	Heptad repeated region / Heptada errepikakorrak
IgG	Immunoglobulin G / G immunoglobulina
IN	Integrase / Integrasa
IPTG	Isopropyl-D-thiogalactopyranoside
IR	Infrared / Infragorria
Laurdan	6-dodecanoyl-2-dimethylaminonaphthalene
LC	Light chain / Kate arina
LPF	Liposome-peptide formulation / Liposoma-peptido formulazioak
LUV	Large unilamellar vesicle / Lamela bakarreko besikula txikiak
MA	Matrix / Matrisea
MCS	Multiple cloning site / Klonazio gune anizkoitza
MHC	Major histocompatibility complex / Histokonpatibilitate konplexu nagusia

MLV	Multilamellar vesicle / Lamela anitzeko besikulak
MPER	Membrane-proximal external región / Mintzaren hurbileko kanpo-eskualdea
NA	Numerical apertura / Irekidura optikoa
NBD	7-nitro-1,2,3-benzoxadiazole
NC	Nucleocapsid / Nukleokapsidea
NFL	Native flexibly linked
NHP	Non-human primates
NMR	Nuclear magnetic resonance / Erresonantzia magnetiko nuklearra
OD	Optical density / Dentsitate optikoa
ON	Over night / Gau osoz
PA	Phosphatidic acid
PBS	Phosphate-buffered saline / Fosfatodun indargetzailea
PDI	Polydispersity index / Polidispertsio indizea
PE	Phosphatidylethanolamine
PI4P	Phosphatidylinositol-4-phosphate
POPC	1-palmitoyl-2-oleoyl-sn-glycero-3-phosphocholine
PR	Protease /Proteasa
PS	Phosphatidylserine
PsV	Pseudovirus
PTM	Post-translational modifications / Itzulpen ondoko aldaketa
Rho	Lissamine rhodamine B sulfonyl chloride
RT ¹	Reverse transcriptase / Alderantzizko transkriptasa
RT ²	Room temperature / Giro tenperatura
SLB	Supported lipid bilayer / Finkatutako lipido geruzak
SDS	Sodium dodecyl sulfate

SDS-PAGE	Sodium dodecyl sulfate polyacrylamide gel electrophoresis
SHM	Somatic hypermutation / Hipermutazio somatikoa
SM	Sphingomyelin / Esfingomielina
smFRET	Single molecule fluorescence resonance energy transfer / Molekula indibidualetan oinarritutako erresonantzia fluoreszentearen energia transferentzia
STED	Stimulated emission depletion microscopy / Igorpen-murriztuko kitzikapen mikroskopia
TEV	Tobacco etch virus
T _m	Melting temperature / Urtze tenperatura
UCA	Unmutated common ancestors / Mutatu gabeko aitzindari komuna
UFO	Uncleaved prefusion optimized
UNAIDS	The Joint United Nations programme on HIV and AIDS / GIB eta HIESaren Nazio Batuen programa
VLP	Virus like particle / Birus antzeko partikula

GIB-1AREN GP41-MPER-TMD DOMEINUTIK ERATORRITAKO PEPTIDOEN SEKUENTZIAK



LABURPENA

SARRERA

Giza Immunoeskasiaren birusa (GIB), Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromearen (HIES) eragilea dena, 1983an Pasteur Institutuan isolatu zen lehen aldiz ¹. UNAIDSek 2020an argitaratutako eguneratze txostenaren arabera, HIESaren pandemia hasi zenetik, kalkulatzen da GIBak munduan 76 milioi pertsona inguru kutsatu dituela eta horietatik 35 milioi, HIESak eragindako gaitzen ondorioz hil direla. Birus honen aurkikuntzatik urte ugari igaro badira ere, ez da orain arte honen aurkako behin betiko sendabiderik ezta txerto eraginkorrik aurkitu. Hala ere, eretrovirusaren kontrako tratamenduak (ingelesetik *Antiretroviral Therapy*, ART) nabarmen murriztu du HIESak eragindako hilkortasuna, hasiera batean hilgarria zen gaixotasun hori kroniko bilakatu eta gaixoen bizi-iraupena luzatzearekin batera, gaixotasunaren transmisioa murriztuz ².

Ondorioz, GIB-1aren aurkako txerto eraginkor bat diseinatzea da pandemia kontrolatu eta gainditu ahal izateko ahalmen handia izan dezakeen estrategietako bat. Env proteina, GIB-1aren gainazalean kokatzen den eta sistema immuneak ezagutzeko eskuragarri dagoen proteina bakarra denez, birusen honen aurkako txerto potentzial baten garapenerako itxaropuz nagusia bilakatu da. Env, gp120 eta gp41 azpiunitateek osatzen duten heterodimeroen trimero bat da ³. Gp120 azpiunitatea, gainazalean kokatzen da eta birusaren eta zelula ostalariaren arteko ezagumenduan parte hartzen du; gp41 azpiunitateak aldiz, mintza zeharkatzen du eta zelularen mintzaren eta birusaren mintzaren arteko fusioaz arduratzen da.

GIB-1aren infekzioa birusaren Env glikoproteinaren gp120 azpiunitatearen eta itxaropuz zelularen CD4 hartzailaren arteko loturarekin hasten da (1.2 irudia). Lotura honek, CCR5 edo CXCR4 kohartzailen eta gp120 azpiunitateko V3 begiztaren arteko lotura ahalbidetuko duten zenbait konformazio aldaketa eragingo ditu. Ondoren, gp41 azpiunitateko N eta C muturreko heptada errepikakorrak (NHR eta CHR hurrenez hurren) agerian geratzen dira eta fusio peptidoa (FP) zelula ostalariaren mintzean txertatzen da ⁴. Jarraian C eta N HR eskualdeak tolesten dira 6-HB egitura eratuz eta bi mintzen arteko hurbilketa eraginez. Gp41 azpiunitateko FPak eta mintz lipidikoan murgilduta aurkitzen den MPER eskualdeak (ingelesetik, *Membrane-Proximal External Region*) zelularen eta birusaren mintzak desegonkortzen dituzte ^{5,6}, hauen arteko fusioa eraginez eta ondorioz, birusaren material genetiko eta zenbait entzima zelula ostalariaren zitoplasman askatzea ahalbidetuz.

GIBaren aurkikuntzatik ia 40 urte igaro diren arren, ez da oraindik birus honen aurkako txerto eraginkorrik diseinatzea lortu; arrakasta falta hau bereziki, birusak garatu dituen immunitate sistemaren aurkako ihes mekanismoen ondorio izan daiteke. Birusaren gainazalean kokatzen den Env konplexua oso dinamiko eta ezegonkorra da eta oso kopuru txikian adierazten da GIBaren mintzaren gainazalean, horietako trimero batzuk gainera, ez-funtzionalak izan ohi dira ⁷. Horrez gain, birusaren aniztasun genetikoa izugarri altua da, birusaren erretrontranskriptasa entzimak ez baitu akatsak zuzentzeko mekanismorik ⁸. Ezaugarri honek izugarri zailtzen du sistema immunearen bidezko trimeroaren ezagumendua. Hala ere, zenbait gaixok GIBaren infekzioa blokeatzeko gai diren eta neutralizazio potentzia altua zein espektrora zabala duten antigorputzak (bnAb, ingelesetik *broadly neutralizing antibodies*) garatzea lortzen dute; eta hauen isolamenduak, Env-en kontserbatutako gune zaurgarrien identifikazioa ahalbidetu du (1.4 irudia). Espektrora zabaleko antigorputzak garatu daitezkeen, denbora luzez eta etengabe egon behar dute antigeno biralekin kontaktuan; horregatik, urteak igaro ondoren, heltze prozesu luze baten ostean soilik sortzen dira ⁹ eta hipermutazio somatiko maila altuak izan ohi dituzte ^{10,11}. Horrez gain, kate astuneko CDR3 begizta luzeak garatzen dituzte, Env trimeroan sakon eta ezkutuan dauden epitopoetara heltzeko gaitasuna ematen dietenak ¹⁰.


BnAb-ek dituzten ezaugarri bereziek eta heltze prozesu luzeen beharrak, txertaketa bidezko hauen indukzioa erronka handia suposatzen du. Hala ere, bnAb-en existentziak berak frogatzen du B zelulek infekzio naturalean sortzen duten erantzuna zenbaitetan, gai izan daitekela GIB-1aren aurkako antigorputz neutralizatzaileak sortzeko. Azkenaldian antigorputzen isolamendu teknikan emandako hobekuntzek eta hauen lotura-guneen identifikazioak, GIBaren aurkako immunogenoen diseinu arrazionalerako oso baliagarria izan daitekeen informazioa eman du.

GIB-1aren aurkako identifikatutako bnAb-en artean, MPER sekuentziara zuzendutakoak, espektrora zabalena erakusten dutenak dira. Izan ere, eskualde hau oso kontserbaturik dago, ezinbestekoa baita birusaren eta itu zelularen arteko fusioa eragiteko ^{5,6}. Orain arte deskribaturiko anti-MPER antigorputzen artean, hobekien deskribaturik dagoena eta espektrora zabal handiena erakusten duena, 10E8 bnAb-a da ¹². MPER immunogeno bikaina dirudien arren, domeinu honetara zuzendutako txertoen saiakerek ez dute arrasta handirik lortu. MPER domeinura zuzendutako txertoen huts egitearen arrazoiatariko bat, eskualde honen malgutasunaren ondorioz, bnAb-en indukzioa eragiten duen MPERaren egitura, oraindik atomikoki ebatzia ez egotea izan daiteke. Bestalde, MPER mintzean txertaturik egoteak, honen konformaziorako eta beraz txertoen garapenerako, lipido ingurunea mantentzea

ezinbestekoa da. Baina, oraindik sakon aztertu beharra dago lipidoek MPER domeinuaren egituraren konfigurazioan zein immunogenizitatearen modulazioan duten zeregina, txertoek izan beharko luketen osaera lipidiko zehatza definitzeko.

Tesi honen helburu nagusia 10E8 moduko antigorputzen erantzuna eragiten duen MPER-TMDaren egitura zehatza imitatzen behar diren baldintza egokiak definitzea litzateke, eskualde honetan oinarritutako immunogenoen diseinu arrazionalan laguntzeko hain zuzen (1.irudia). Horretarako, MPER epitopoaren sekuentzia espezifikoa eta lipido-peptido txertoen lipido konposizio zehatza definitu nahi izan da.

EMAITZAK ETA EZTABAIDA



1. irudia. MPER domeinuan oinarritutako immunogenoak ekoizteko jarraitutako estrategia. **A)** cryo-EM berreraikuntzan oinarritutako 10E8 MPERari lotutako eredu (EMDB-3312). **B)** 10E8 antigorputzak ezagutzen duen MPER epitopoaren egitura imitatzen jarraitutako estrategia. i) Epitopoaren gainazaleko aurkezpen egonkorra, TMDa ainguraketa moduan erabiliz. ii) Erantzun immunea C-MPERera zuzentzeko, N-MPER domeinu immunogenikoaren ezabaketa. iii) LPF-en formulazioen optimizazioa 10E8 eta honen aldaerak erreferentzia gisa erabiliz. Peptidoaren aurkezpena hobetzen da transmintz domeinuaren sekuentziaren luzera handituz eta besikula lipidikoetatik kolesterola ezabatuz.

10E8k ezagutzen duen egitura imitatzen duen sekuentzia definitze aldera, tesi honetan jarraitutako strategiaren lehenbiziko urratsa (1.irudia i), MPER-TMDan oinarritutako peptidoen egitura antigenikoa definitzea litzateke, mintzean perturbaziorik sortzen ez duena hain zuzen. Lipido-peptido formulazio (LPF) egonkorak definitzeko, eta C-MPER


zonaldera zuzendutako erantzun immuneak lortzeko, N-MPER eremua ezabatzea egokiena dela ikusi izan da.

Halaber, txertoen diseinurako jarraitu den hurrengo estrategia, transmintz domeinuaren gehipena izan da. Izan ere, uste da errekonstituzio prozesuaren ostean besikula lipidikoen gainazalean kokatuko den epitopoaren aurkezpena egokia eta egonkorra izan dadin, peptidoaren ainguraketan eta honen egituraren modulazioan parte hartuko duen sekuentzia hau gehitzea erabilgarria izan daitekeela. Beraz, mintza zeharkatzen duten sekuentziaren luzera desberdineko peptidoak diseinatu dira eta lipido konposizio desberdineko besikuletan hartzen duten egitura eta antigenizitatea aztertu da. Alde batetik, TMDaren gehipenak, bigeruzaren egonkortasun mekanikoa nabarmen hobetzen duela ikusi da, LPF egonkorrak diseinatzeko ezinbesteko ezaugarria alegia. Gainera, mintza zeharkatzen duen sekuentziaren luzerak, epitopoaren irisgarritasuna eta honekin batera antigorputzen afinitatea modula dezakela baieztatu da. Hain zuzen, LPFetan jarritako transmintz sekuentziaren luzera zenbat eta luzeagoa izan, 10E8 antigorputzaren ezagupena hobea dela frogatu da, epitopoaren esposizio maila emendatzen dela alegia.

Azkenik, tesi honetan ikertu den GIBaren aurkako txertoen diseinurako hirugarren estrategia, LPFek izan beharko luketen lipido konposizio zehatza definitzea izan da. Lipido konposizioa funtsezko elementua da MPER-TMD domeinuan oinarritutako peptido-lipido txertoen diseinuan, lipidoek peptidoen egitura modulatzeko gaitasuna baitute eta ondorioz, epitopoa sistema immunera nola aurkeztuko den definituko dute. GIB-1aren mintza kolesterolean aberatsa denez, lipido honen kontzentrazio altua duten besikulen erabilpena aztertu da, peptidoak birusean duen ingurune natiboa imitatze aldera. Hala ere, kapituluetan zehar ikusi da besikulen kolesterol edukia handitzeak, negatiboki eragiten duela peptidoaren egituran, epitopoaren mintzean zeharreko ezkutaketa eraginez. Epitopoaren oklusioak, 10E8 bnAb-ak lotura gunera iristeko duen gaitasunaren murrizketa eta honekin batera, antigenizitatearen galera eragiten du. Tesi honetan beraz, C-MPER domeinuan oinarritutako txertoak ekoizteko, birusaren mintzak duen kolesterol kontzentrazioa imitatzea ez dela egokia ikusi izan da; hau da, anti-MPER antigorputzak sortzeko LPF-en formulazioak kolesterolik gabe diseinatu behar dira.

1.KAPITULUA

SARRERA ETA HELBURUAK



1. SARRERA

Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromea (HIESa) Amerikako Gaixotasunen Kontrolerako eta Prebentziorako Zentroak (ingelesez *Center for Disease Control and Prevention, CDC*) diagnostikatu zuen lehen aldiz 1981eko ekainean. 1983an Luc Montagnierrek, Pasteur Institutuko bere taldearekin batera, erretrovirus berri bat aurkitu zuen HIESaz kutsatutako gaixoengandik hartutako laginak aztertzen ari zen bitartean ¹. Urte bat beranduago, erretrovirus hau, HIESaren eragile bezala identifikatua izan zen ¹³ eta 1986an Giza Immunoeskasiaren Birusaren (GIB) izena eman zitzaion ¹⁴.

UNAIDSek 2020an argitaratutako txostenaren arabera, HIESaren pandemia hasi zenetik, GIBak munduan 76 milioi pertsona inguru kutsatu ditu, horietatik 35 milioi HIESak eragindako gaitzen ondorioz hil direlarik. Bestalde, gaur egun 38 milioi pertsona bizi dira HIESarekin eta 1.7 milioi infekzio berri gertatu ziren 2020an, batez ere Afrika ekialde eta hegoaldean. Orain arte behin betiko sendabiderik aurkitu ez bada ere, erretrovirusaren kontrako tratamenduak (ingelesetik *Antiretroviral Therapy, ART*) nabarmen murriztu du HIESak eragindako hilkortasuna, terapia hau 2006tik 2019ra bitartean izandako heriotzen % 48ko beherakadaren erantzulea delarik.

Zidobudina (ZDV), azidotimidina (AZT) bezala ere ezaguna, FDAk (ingelesetik *Food and Drug Administration*) 1987an GIBari aurre egiteko onetsi zuen lehen botika izan zen. Ordutik, 220 tratamendu baino gehiago izan dira onartuak. Gaur egun infekzioa kontrolatzeko erabiltzen den erreferentziazko tratamenduak HAART (ingelesetik, *Highly Active Antiretroviral Therapy*) izena hartzen du eta botika ezberdinen konbinazioa da. Botika hauek nagusiki, birusaren alderantzizko transkriptasa (RT) eta proteasa (PR) entzimen aurka egiten dute, birusaren karga eta transmisio tasa murriztuz. Tratamendu honi esker, HIESa gaixotasun kroniko bilakatzea lortu den arren, gaixoen bizi-iraupena luzatuz eta gaixotasunaren transmisioa murriztuz ², kutsatutako pertsonen % 60k bakarrik du terapia eskuragarri. Horrez gain, HAARTa ez da gai latentzia fasean dagoen birusa ezabatzeko, eta ondorioz, gaixoek bizitza guztian zehar jaso behar dute tratamendu hau, albo-ondorio ugari pairatuz ¹⁵.

Hori dela eta, GIBaren aukako txerto eraginkor bat garatzea funtsezkoa da pandemia kontrolatu eta azkenean honekin amaitu ahal izateko. Txertoen garapenerako teknologia izugarri hobetu den arren, eta GIBa aurkitu zenetik 30 urte igaro diren arren, ez da oraindik birusen honen aurkako txertorik aurkitu.

1.1 1 MOTAKO GIZA IMMUNOESKASIAREN BIRUSA


GIBa *Lentivirus* generoan, *Retroviridae* familiaren barruan sailkatzen da. Erretrovirusak ornodun espezie ezberdinetan aurkitu izan dira eta animalia zein gizakien gaixotasun askorekin erlazionaturik daude. Familia honek iraupen luzeko gaixotasunak eragiten ditu batez ere, inkubazioaldi luzeak ¹⁶.

Ezaugarri genetiko eta antigeno biralen desberdintasunetan oinarriturik, GIBa 1 eta 2 motetan sailkatu daiteke (GIB-1, GIB-2 hurrenez hurren). GIB-1ak birulentzia altuena du, errazago transmititzen da eta mundu mailan GIBak eragindako infekzio gehienen sortzailea da ¹⁷. GIB-1aren andui desberdinak hiru talde nagusitan sailkatu daitezke: M (ingelesetik *Major*), N (ingelesetik *New*) eta O (ingelesetik *Outlier*) ¹⁸. Era berean, M taldean kokatzen diren anduiak oso desberdinak direnez, A-tik K-rako kladoetan sailkatu ohi dira. Horietatik, B kladoa nagusiki Ipar Amerika eta Europan aurkitu daiteke eta ikerketa gehienek itua da. Zehazki, klado honen HXB2 hartu da erreferentzia gisa tesi lan honetan. GIB-2aren transmisio ahalmen baxuaren ondorioz, Mendebaldeko Afrikara mugatzen da ¹⁹.

1.1.1. GIB-1aren egitura eta infekzio zikloa

GIB-1 birioi heldua mintz lipidiko batez inguratutako eta 100 nm-tako diametroa duen partikula esferikoa da (1.1 irudia). GIB-1aren genoma, nukleokapsidearen (NC) barruan kokatzen diren 9 kb-tako kate bakuneko bi RNA molekulek osatzen dute. RNArekin batera, birusaren NCaren barnean kokatzen diren elementu garrantzitsuenak alderantzizko transkriptasa (RT) eta integrasa (IN) entzimak dira. Nukleokapsidea NC proteinez eraturik eta kono itxura hartzen duen kapsideaz (CA) inguraturik dago. Birus honen genomak 9 gene ditu, baina funtsezkoak hiru dira: *gag*, *pol*, eta *env*. *Gag* matrizea (MA) osatuko duten egiturazko proteinen aitzindaria da, eta MA, CA, NC eta p6 kodetzen ditu. PR, RT eta IN entzimak *pol* geneak kodetzen ditu. *Env* genea, gp160 fusio glikoproteina (Env) kodetzen du eta aitzindari honen proteolisiaren bitartez, bi azpiunitate lortzen dira: gp120 (gainazaleko proteina) eta gp41 (transmintz proteina). Azpiunitate hauek, birusaren gainazalean kokatuko den Env trimerikoa osatuko dute ²⁰, itu zelularen hartzaile eta kohartzailearen batuketaren, eta jarraian ematen den zelula eta birusaren mintzen arteko fusioaren erantzulea alegia. Azkenik, GIB-1ak sei proteina gehigarri kodetzen ditu; horietatik hiru (Vif, Vpr eta Nef) birus partikulan daude, beste bi

(Tat eta Rev) gene erregulazioan funtsezkoak dira eta azken proteinak, Vpu-k, zeharka laguntzen du birioiak muntatzen.



1.1 irudia. GIB-1 birioi helduaren modelo eskematikoa. Birusaren proteina garrantzitsuenak irudikatu dira. GIB-1 esferikoa da eta honen gainazalean Env konplexua kokatzen da, gp120 eta gp41 azpiunitatez osaturik dagoena. Kono itxura hartzen duen kapsidea RNA, NC eta entzimak biralak babesten ditu. Irudia, ²¹-tik egokitua izan da.


GIB-1ak CD4 hartzaila eta CCR5 edo CXCR4 kohartzailak adierazten dituzten immunitate sistemako zelulak infektatzen ditu; horien artean, T linfuzitoak, monozitoak, makrofagoak eta zelula dendritikoak. Infekzioa gertatzean, GIBaren aurkako CD8⁺ eta CD4⁺ T linfuzito espezifikoak sortzen dira, erantzun zelular bat eragingo dute, karga birikoaren murrizketa eragingo delarik. T linfuzitoez gain, immunitate sistemako B zelulak ere aktibatu egiten dira; baina, antigorputzen bidezko hasierako erantzunak ez du birusaren erreplikazioa kontrolatzerik lortuko. Hain zuzen, hilabeteak behar dira birus autologoaren aurkako antigorputz neutralizatzaileak garatzeko. Hala ere, GIBak immunitate sistematik ihes egiteko hainbat estrategia garatu ditu. Horien artean, birusaren mutazio-tasa altua, alderantzizko transkriptasak akatsak zuzentzeko mekanismorik ez duenaren ondorio ⁸. Honek, aldakortasun genetiko izugarria sortzen du birusean, funtzionalak diren eskualdeak ere oso aldakorrak bihurtuz, soilik euren funtzioa betetzeko ezinbestekoak diren hondakin kopurua mantentzen delarik ²². Honez gain, birusaren gainazalean kokatzen diren Env konplexu gutxi daude (8-14 espikula birioi bakoitzeko); horietako batzuk ez-funtzionalak dira eta are gehiago, gp120 azpiunitatearen berezko ezabaketa gertatu ohi da ⁷. Gainera, Env glikoproteinaren eskualde funtzionalak, oro har, glikosilazioz babesturik daude ²³, esterikoki izkutatuak fusio prozesua hasten den arte ²⁴, edo askotan, antigorputz ez-neutralizatzaileen epitopo gainartzaile edo immunodominantez inguratuz. Ihes mekanismo hauei esker,

infekzioa gertatu ostean, immunitate sistemaren erantzunari esker birus-karga gutxitzen den arren, ez da infekzioa guztiz ezabatzea lortzen.

Infekzio prozesua, birusaren Env-en gp120 azpiunitatearen eta zelularen CD4 hartzailaren arteko loturak abiarazten du. Lotura honek, konformazio aldaketa bat eragingo du, CXCR4 edo CCR5 kohartzailen ezagumendua ahalbidetuko duena eta mintzen arteko fusioa eragingo duena. Zelula eta birusaren arteko mintzen fusioa gertatzean, birusaren RNA eta zenbait entzima (RT, IN, erribonukleasa eta PR barne), zelula ostalariaren zitoplasman askatzen dira. Ondoren, birusaren RTak RNA kate bikoitzeko DNAn erretrontranskribatuko du eta nukleoaren poroen bidez nukleora igaroko da MA, Vpr, IN eta faktore zelularrekin konplexu bat eratuz. Nukleoan, INak DNA birala zelula ostalariaren kromosoman integratuko du. Birusa orduan, latentzia-fasean sartuko da DNAREN transkripzioa aktibatzekeko seinale bat, hala nola, Tat proteinaren aktibitatea jaso arte. Transkripzioaren lehen urratsetan, RNA polimerasak mRNAk sortzen ditu Tat, Nef eta Ref-entzat. Berehala, beste proteina biral batzuen zein RNA genomikoaren ekoizpena emango da, Tat proteinaz kontrolatutako prozesua izanik. Berriki sintetizatutako egitura-proteinak mintz plasmatikora garraiatzen dira eta mihizatzen hasten dira konplexu bat eratzen den arte eta azkenean, birioi heldugabea gemazio bidez askatuko da. Une honetan, PRak Gag eta Gag-Pol poliproteina aitzindariak proteolizatuko ditu erreplikazio zikloa osatuz. Azkenik, birioi helduak infekzio ziklo berri bat abiarazi dezake ^{25,26}.

1.1.1.1 Env bidezko birus eta zelularen mintzen arteko fusioa

Mintzen arteko fusioa, termodinamikaren ikuspegitik, hesi kinetiko handiak gainditu behar dituen gertaera ez-onuragarria da, batez ere aldarapenezko hidratazio indarrak direla eta ²⁷. Birusaren mintzaren kasuan, aipaturiko hesi kinetikoa birusaren fusio proteinen birtolestean sortzen den energia askearekin gainditzen da ^{28,29}. GIB-1aren kasuan, Env glikoproteina da birusa itu zelulan sartzea ahalbidetzen duena (1.2 irudia). Zenbait ikerketek, fusioa eman dadin Env espikula gutxi nahikoak direla diote ³⁰⁻³², birioi helduan Env gutxi dagoenaren modeloarekin bat datorrena ⁷ alegia. Fusio prozesuaren lehen urratsa, birusaren gp120 eta zelularen CD4 hartzailaren arteko afinitate altuko elkarrekintza gertatzen denean ematen da (1.2 A irudia), fusio aurretik guztiz itxita dagoen trimeroaren irekiera eraginez ^{33,34}.



1.2. irudia. GIB-1aren fusio prozesuaren irudikapena. **A)** CD4 eta gp120 molekulen arteko loturak Env-en konformazio aldaketa eragiten du, **B)** gp120 azpiunitateko V3 begizta CCR5 edo CXCR4 kohartzaileen arteko kontaktua ahalbidetzen duena. **C)** Kohartzailearekin elkarrekintza eman ondoren, gp41 azpiunitateko N eta C muturreko heptada errepikakorrak (NHR eta CHR) agerian geratzen dira eta fusio peptidoa (FP) zelula ostalariaren mintzean txertatzen da, birusa zelula ostalarira ainguratuz eta *pre-hairpin* bitartekaria eratuz. **D)** Jarraian, C eta N HR eskualdeak tolestu egiten dira eta 6-HBa eraten dute. **E)** Birmoldaketa hauek birusaren mintzaren eta zelula ostalariaren hurbilketa estua eragiten dute, hemifusio bitartekari bat eratuz eta azkenik fusio-poroa sortuz.

Elkarrekintza horrek eragindako konformazio aldaketek, gp120 azpiunitateko kohartzailearen lotura gunea agerian jarriko du, honen eta CCR5 edo CXCR5 zelulen kohartzailearen arteko lotura eraginez (1.2 B irudia) ^{35,36}. Lotura honek, gp41 azpiunitatean mintzen arteko fusioa eragingo duten konformazio aldaketak sustatuko ditu. Lehenik eta behin, gp41eko N muturrean kokatzen den FPa itu zelularen mintzean txertatuko da zurtain itxura duen *pre-hairpin* deituriko bitartekaria sortuz, non bi mintzak gp41en bitartez konektaturik dauden (1.2 C irudia) ⁴. Jarraian, gp41eko monomero bakoitzaren NHR eta CHR domeinuak berrantolatzen dira sei-helize sorta (ingelesetik, *six-helix bundle*, 6-HB) deituriko egitura antiparaleloa sortuz, non FPa zelula mintzean txertaturik dagoen. Birusaren mintzean txertaketa, mintzetik gertu aurkitzen den MPER domeinuaren (ingelesetik, *Membrane Proximal External Region*) eta mintza zeharkatzen duen domeinuaren (TMD) bitartez ematen da (1.2 D irudia). Horrela, bi mintzak elkarrengana hurbiltzen dira, kanpoko bi lipido monogeruzen arteko fusioa gertatuz ^{37,38}.

Ondoren, hemifusio bitartekaria hautsi eta fusio-poro bat eratzen da, 6-HB konformazioak erregulaturiko prozesua izanik (1.2 E irudia) ³⁹. Azken ezegonkortze urrats hauetan uste da MPER domeinuak funtsezko zeregina duela adabaki hidrofobiko txikiak eta mintzaren kurbaduraren estresa sorraraziz; jarduera hauek konposizio lipidikoak modulatu ditzakeelarik ⁴⁰⁻⁴³.

1.1.1.2 Birusaren mintza

Birus bilgarridunen lipidoek funtsezko eginkizuna dute birusaren infekzio zein morfogenesian. GIB-1ak zelula ostalariaren mintz plasmaticotik lortzen du bere lipido geruza, zeinetan erreplikazio zikloan Env proteinak txertatzen diren. Egitura proteina nagusia, Gag, mintz plasmaticora garraiatzen da eta nahikoa da birus ez-infekziosoak eratzeko. Birus infekziosoak sortzeko ostera, birusaren genoma, erreplikazio-entzimak eta gainazaleko glikoproteinak behar dira; guzti hauek Gag proteinak biltzen dituelarik ⁴⁴.

Pentsa zitekeen GIB-1ak infektatutako zelulen mintzetik eratorritako lipido geruza duenez, zelula ekoizlearen mintz plasmaticoaren antzeko osaera lipidikoa izatea. Hala ere, Aloia eta lankideek desberdintasunak antzeman zituzten GIB-1aren eta infektatutako zelularen mintzen konposizio lipidikoen artean. Ikerketa honen arabera, GIBaren mintza esfingolipidoetan eta kolesterolean (Chol) aberasturik egon ohi da eta ondorioz, honen jariaortasuna baxuagoa da infektatutako zelularekin alderatuta ^{45,46}.

Lipidoen masa espektrometrian egindako aurrerapenei esker, Aloia eta lankideek eginiko ikerketan ondorioztatutakoa berretsi ahal izan zen ⁴⁷. Hain zuzen, GIBaren partikulen lipidomaren analisi kuantitatiboak aditzera eman zuen mintzaren ordena sustatzen duten lipidoen, hala nola, esfingomielina (SM) eta Chol-a, GIBaren gainazalean metatzen direla, detergenteekiko erresistenteak diren mintz mikrodomeinuetan aurkitzen diren kontzentrazioetan hain zuzen. Chol-a da birusaren estalki lipidikoaren osagairik ugariena, lipido guztien ia % 50a izanik. Honekin bat etorritz, GIBaren mintza oso ordenatua da ^{48,49}. Gainera, ikusi da GIBaren mintza zeramidetan, dihidroesfingomielinan (DHSM), aminofosfolipidoetan, fosfoetanolaminan eta fosfoinositidoetan aberasturik dagoela ^{47,50}. Fosfatidilserina (PS) eta fostadiletanolamina (PE) birioi helduen bigeruzak lipidikoaren kanpo mintzean kokatzen dira batez ere ^{51,52}, ATP-menpekoak diren aminofosfolipido translokasek bultzatzen duten mintzean dagoen lipidoen banaketa asimetrikoaren galerarekin bat etorritz.

Beraz, birusaren eta zelula mintzaren lipido konposizioan dagoen desberdintasun handiak eta honen konposizio bereziak, GIB-1aren gemazioa esfingolipido eta Chol-ean aberatsak diren nanodomeinuetatik ematen denaren hipotesia baieztatzen du⁵³⁻⁵⁵. Osaera lipidiko hau mantentzea garrantzi handikoa dela dirudi; izan ere, zelula ekoizleetan Chol-aren edo SM-aren sintesia inhibitzeak, edo Chol-a birus zein itu-zelulatik ezabatzeak, nabarmen murrizten du birusen ekoizpena eta hauen infektatzeko gaitasuna^{47,56,57}.

1.1.2. Gainazaleko glikoproteina (Env), txertoen garapenerako itua

GIB-1aren gainazalean eskuragarri dagoen proteina bakarra denez, Env espektro zabaleko antigorputz neutralizatzaileen (ingelesetik, *bnAbs* edo *Broadly Neutralizing Antibodies*) itu bakarra da eta beraz, GIBaren aurkako txertoen garapenerako helburu nagusia⁵⁸. Hori dela eta, ahalegin handiak egin dira honen egitura eta funtzioa aztertu eta ulertzeko. Aurretiaz aipatu moduan, Env mintza zeharkatzen duen proteina oligomerikoa da, 1 motako fusio-proteina biralen parte da eta hiru gp120 (gainazaleko azpiunitatea) eta hiru gp41 (transmintzeko azpiunitatea) azpiunitatez osatua dago, heterodimeroen trimero egonkor bat osatzen dutenak.

Env, erretikulu endoplasmatikokoan (ER) sintetizatzen da gp160 aitzindari bezala. Bertan, itzulpen ondoko eraldaketa ugari pairatzen ditu; horien artean, disulfuro zubi kontserbakorren sorrera eta manosa ugari dituzten glikanoen gehikuntza²⁶. Aitzindaria jarraian, Golgi aparatua garraiatzen da, non itzulpen ondoko eraldaketa gehiago jasaten dituen, glikano konplexuen gehikuntza eta gp120 eta gp41 azpiunitateen proteolisia barne^{59,60}.

Gp120 azpiunitatea bi domeinu nagusitan tolesten da, kanpo eta barne domeinuetan alegia. Bost domeinu aldakorrek (V1-V5) beste bost domeinu konstanteekin (C1-C5) tartekatzen dira eta immunitate sistemari ikusgai gelditzen diren begizta aldakorrek eratzen dituzte. V1ek V2k eta V3k trimeroaren egonkortze domeinua osatzen dute mintzetik urrun gelditzen den espikularren goiko partean alboko gp120 protomeroekin elkarreraginez.


Env oso proteina ezegonkor eta dinamikoa denez, bere kristalizazioa eta estruktura atomikoaren zehaztapena errazteko, Env trimero mutatu edo ez-osoak erabili izan dira. Hasiera batean, gp120 nukleoa, V1-V2, V3 eta N muturreko eremua faltan zituela, bi

modutan kristalizatzea lortu zen: i) glikosilaziorik gabe eta CD4 amino muturreko bi domeinuekin eta 17b antigenoa batzen duen fragmentuarekin (Fab, ingelesetik *Fragment, antigen-binding*) konplexua eratuz ^{61,62}, eta ii) guztiz glikosilatua eta inolako konplexurik eratu gabe ⁶³. Ondoren, gp120 azpiunitatearen zenbait egitura atomiko ebatzi ziren, V3 begizta osorik zuena ⁶⁴, N eta C muturreko luzapenekin ⁶⁵ eta baita, elkarrekintzarik eratu gabe ⁶⁶. Horrez gain, FP eta MPER domeinurik gabeko gp41 trimero disolbagarriaren egitura, fusio osteko konformazio egonkorrean, erresonantzia magnetiko nuklearraz (NMR) eta X-izpien kristalografiaz ebatzia izan zen ⁶⁷⁻⁶⁹.

2013. urtean, lehen aldiz ebatzi zen Env trimero solugarriaren (SOSIP.664) egitura atomikoa kriomikroskopia elektronikoa (cryoEM) eta X-izpien kristalografia konbinatuz ^{20,70}. Trimero hau, MPER, TMD eta isats zitoplasmatikoa (CT) faltan zituela eta anti-gp120 antigorputzekin lotuta ebatzi zen. SOSIP.664ren hasierako egituraren Env glikoproteinaren sekuentzia, A kladoaren BG505 anduitik eratorritakoa izan zen, egonkortzeko mutazio batzuk zituela: i) disulfuro zubi bat (SOS) sorrarazi zen gp120ren 501 eta gp41en 605 hondarren artean ^{71,72}, ii) 559. posizioko isoleuzina prolina batez (IP) ordezkatu zen ⁷³ eta iii) 664. hondarretik aurrerako sekuentzia ezabatu egin zen. Ostean, SOSIP egituraren ebazpena hobetzea lortu da GIBaren aurkako antigorputz desberdinei batuta ^{74,75}. 2016. urtean ebatzi zen SOSIP mutaziorik gabeko bereizmen altuko lehen Env trimeroa ⁷⁶. Kasu honetan, B kladoaren barnean sailkatzen den JR-LF andui basatia erabili zen, CTa faltan zuela eta PGT151 antigorputzari lotua ⁷⁶.

1.1.2.1 Env-en malgutasuna, “arnasketa” prozesua

Aurretiaz aipatu bezala, GIB-1aren Env espikula oso proteina malgu eta dinamikoa da, eta berez igarotzen da konformazio itxi eta erlaxatuagoaren artean “arnasketa” deritzon prozesua jarraituz ^{77,78} (1.3 irudia). Molekula-indibidualetan (ingelesetik, *single-molecule*) oinarritutako erresonantzia fluoreszentearen energia-transferentzia (smFRET) erabiliz eta analisi estrukturaletan oinarrituz, birioietan egindako esperimentuetatik ondorioztatutako emaitzek, irekiera maila desberdineko hurrengo lau konformazio desberdin definitu dituzte: 1, 2, 2A eta 3 ⁷⁹⁻⁸².



1.3 irudia. Env-en konformazio egoerak. Irudian, eskematikoki, GIB-1aren konformazio egoerak ageri dira. CD4 hartzailea lotu aurretik, orokorrean Env 1. egoeran, konformazio itxian ageri da. CD4rekin lotzean, Env partzialki eta asimetrikoki konformazio irekitik, 2A egoeratik, guztiz irekitako konformaziora, 3. egoerara, igarotzen da. 2A egoerak konformazio asimetrikoa eta partzialki irekia erakusten du, CD4mc anti-CoRBS eta antiCluster A antigorputzek eragin dezaketena. Irudia ⁸²-tik egokitua.

CD4rekin lotu aurretik, Env nagusiki konfigurazio itxian (“1. egoeran”) mantentzen da, non V1/V2 begiztak trimeroaren muturretik hurbil kokatzen diren. Egoera itxi honetan, Env-en dauden epitopoak konformazionalki izkutatuturik daude, eta neurri handi batean antigorputzekiko erresistenteak dira ^{20,24,70}. CD4 hartzailearekin batzeak, “1. egoeratik” partzialki irekitako “2. egoerarako” trantsizioa eragiten du ⁸¹. Beste CD4 hartzaileekin lotzean, guztiz irekitako konformaziora aldatzen da Env, “3. egoerara” alegia. Azken egoera honetan, Env guztiz irekitako konformazioan egonik, CCR5/CXCR4 kohartzaileen arteko interakzioa baimentzen du, V3 begizta aldakorra guztiz agerian dagoelarik.

Bide honetatik kanpo, partzialki irekitako konformazio bat identifikatu berri da ⁸², CD4mc (ingelesetik CD4 *mimetic compounds*) eta antigorputzek sorrarazten dutena, “2A egoera” deiturikoa alegia. Konformazio honetan, Env-ek bitarteko konformazio asimetrikoa hartzen du, non protomero bakoitzak konformazio desberdinak hartzen dituzten.

“1. egoeran” agertzeko joera, dirudenez, GIB-1 azpitalde eta anduien menpekoa da. “Tier 1” edo lehenengo mailako birusek, neutralizazioarekiko sentikorrangoak izanik, tarteko egoera irekiak hartzen dituzte nagusiki. Aldiz, 2. mailako (GIBaren andui zirkulatzailer gehienak) eta 3. mailako birusek, neutralizazioarekiko erresistenteagoak izanik, konformazio itxiak ⁸³.

Trimerorearen irekiera iragankorrak, bnAb-en epitopo ezutuak agerian uzten dituela dirudi, immunogenizitatea erregulatu daitekeelarik Env konformazio itxian izkutatuta dauden epitopoak agerian jarritz. Anti-MPER antigorputz askok adibidez, CD4rekin lotuta dagoen Env konformazio irekia (“3. egoera”), konformazio itxia baino eraginkorrago ezagutzen dute ⁸⁴.


1.1.2.2 bnAb-ek ezagutzen dituzten gune zaurgarriak

Env-ek immunitate sistema saihesten du neutralizazioarekiko erresistenteak diren konformazioak bultzatuz, non glikanoek azaleraren zatirik handiena estaltzen duten ⁸⁵. Konformazio ezkutaketa honen ondorioz, Env-era zuzendutako antigorputz gehienak ez-neutralizatzaileak dira. Hala eta guztiz ere, zenbait gaixok bnAb-ak garatzen dituzte, eta hauen isolamenduak, Env-en kontserbatutako gune zaurgarrien identifikazioa ahalbidetu du (1.4 irudia). Eskualde hauek, ezinbesteko funtzioak betetzen dituztela dirudi eta hurrengoak dira: V3 eta V1/V2 begiztez eta inguruko glikanoez osatutako guneak, CD4 hartzailearen lotura-gunea (CD4bs), MPER domeinua, gp41-gp120 monomeroen interfasea, FPa eta Env-aren aurpegi isila. Jarraian, hobekien karakterizatutako guneak deskribatuko dira.

V1/V2-ren gune apikalak, glikanoez eta begizta aldakorrez ezkutaturik dagoen ^{86,87} epitopo glikopeptidikoa osatzen du. V1/V2ra bideratutako antigorputz espezifikokoak, hala nola PG9 eta PG16, V1/V2 begiztaz eta 156 zein 160 posizioetan kokatzen diren glikanoez osaturiko epitopo kuarternarioa ezagutzen dute. Antigorputz horiek, kate astuneko osagarritasuna determinatzen duen eskualdea (CDRH3) begizta luze, zurrun, anionikoak erabiltzen dituzte glikosilazio zurruneko geruza trinkoan sartu ahal izateko ^{86,88}.

V1/V2 eskualdearen antzera, V3-glikano gunea epitopo glikopeptidikoa osatzen du, CCR5 kohartzailearen batuketa guneaz eta inguruan dituen glikanoz osaturik baitago, batez ere manosa ugaridun adabaki kontserbakorrean parte hartzen duen N332 azukrea ^{89,90}. Eskualde horretara zuzendutako bnAb-ak, PGT121 eta PGT128 kasu, CDRH3

begizta luzeak eta hurbiltze angelu desberdinak erabiltzen dituzte euren epitopoa gordetzen duen poltsiko kontserbakorrekin elkarrekintzak sortzeko ^{89,91}.



1.4 irudia. bnAb-ek ezagutzen dituzten gune zaurgarriak. V1/V2 gune apikala urdin ilunez, V3-glikanoa horiz, CD4bs-a laranja, gp120ren aurpegi isila berdez, gp120/gp41 interfasea urdin argiz eta MPER morez. Gune bakoitzera zuzendutako bnAb esanguratsuenak kutxetan adierazi dira. (B klado GIB-1 JR-LF EnvCT, EM mapa EMD-3308).

CD4bs-a, funtzio aldetik kontserbatua dagoen eta gp120 azpiunitatean glikanoez ezkutaturako gune zaurgarria da. Eragozpen esterikoak medio, N49P bezalako, CD4bs-era bideraturako antigorputzek, epitopora hurbiltzeko angelu zehatza behar izaten dute espektro zabala eta potentzia eskuratzeko ^{92,93}. Eskualde honetara zuzendutako antigorputzak dira, espezifikotasun guztien artean, espektro eta potentziari dagokionez erlazio hoberena erakusten dutenak. Gune honek sekuentzia eta egitura heterogeneotasun handia erakusten badu ere, jakina da infekzio naturalean bnAb kopuru altuena eragiten duena dela ⁹⁴.

Aurretiaz esan bezala, MPER eskualdea oso kontserbaturik dago eta fusio makinariaren osagai garrantzitsuenetako bat da. MPER domeinuari zuzendutako antigorputzak aurkitutako lehengoaren artean daude, eta ondorioz, sakonki aztertuak izan dira. CDRH3 begizta luzeak erabiltzen dituzte mintzaren interfasean txertaturako aminoazidoen sekuentzia lineala ezagutzeko, eta badirudi zenbaitek, halaber, birusaren

mintzaren osagai lipidiko bat ere dutela euren epitopoen ^{95,96}. Orokorrean, oso espektro zabalekoak dira, baina neurrizko potentzia izaten dute.


1.1.2.3 GIBaren aurkako bnAb-en aparteko ezaugarriak

GIB-1arekin infektatutako indibiduen % 20-30 inguruk hainbat andui neutralizatzeko gai diren antigorputzak sor ditzakete infektatu eta hilabete batzuk igarotzerakoan ^{97,98}; baina, soilik horien % 1ek, "elitezko neutralizatzaile" deiturikoen, garatzen ditu klado gehienek aurkako potentzia altuko aktibitatea duten antigorputzak ⁹⁹. Hau da, bnAb-ak oso gutxitan garatzen dira prozesu naturalean eta horretarako, denbora luzez eta etengabe egon behar dute antigeno biralekin kontaktuan; horregatik, urteak igaro ondoren soilik sortzen dira ⁹. Are gehiago, bnAb-ak modu pasiboan txertatuta, primateak eta gizatiartutako saguak birusaren infekzioetik babesteko gaitasuna dute ^{100,101}. Gainera, horietako askok, arrakastaz egin dute aurrera gizakiekin egindako saiakuntza klinikoetan (ikus: <https://clinic.gov/ct2/home>).

GIBaren aurkako bnAb-ak infekzio naturalean lortutako aparteko ezaugarri batzuk partekatzen dituzte. Lehenik, hipermutazio somatiko (ingelesez *Somatic Hypermutation*, edo SHM) maila altuak izan ohi dituzte, antigeno biral desberdinekin etengabeko kontaktuaren eta heltze prozesuaren ondorioz sortuak ^{10,11}. Horrez gain, bnAb-en arbasoetara jotzean, neutralizazio gaitasuna eta epitopoak batzeko espezifitasuna murriztu eta askotan erabat galdu egiten dutela ikusi da ¹⁰². Halaber, normalean ezohiko CDRH3 begizta luzeak izaten dituzte Env trimeroan sakon eta ezkutuan dauden epitopoetara heltzeko gaitasuna ematen dietenak ¹⁰.

GIB-1aren aurka sortzen diren bnAb-etako batzuek, poli- edota auto-erreaktibitatea erakutsi dezakete ^{103,104}. Antigorputz polierreaktiboek, itxuraz zerikusirik ez duten antigeno edo autoantigeno bat baino gehiago ezagutzen dituzte. Autoerreaktiboek, aldiz, autoantigeno bat edo batzuk batzen dituzte modu espezifikoan. Ezaugarri hau, B zelulen heltze prozesuan zehar lor daiteke; antigorputz poli- edota auto-erreaktibo gehienak sistematik ezabatzen diren arren, horietako batzuk tolerantzia kontrol puntuak saihestea lortzen dute ^{105,106}. CD4bs-a ezagutzen duten antigorputz batzuek, autoerreaktibitate maila baxua izaten dute; adibidez b12 antigorputzak, CD4bs guneko bere epitopoa ezagutzeaz gain, erribonukleoproteina eta kate bikoitzeko DNA ere ezagutzen dute ¹⁰⁷. MPER domeinuari zuzendutako zenbait antigorputzek, polierreaktibitatea erakusten dute; 2F5 eta 4E10 antigorputzek adibidez, gp41ean kokatutako euren epitopoa ezagutzeaz gain, birusaren mintza ere ezagutzen dute ¹⁰⁸.

BnAb-en existentziak berak frogatzen du B zelulek infekzio naturalean sortzen duten erantzuna gai dela GIB-1aren aurkako antigorputz neutralizatzaileak sortzeko. Antigorputz hauen isolamenduak eta lotura-guneen identifikazioak, immunogenoen diseinu arrazionalerako oso baliagarria izan daitekeen informazioa eman ditzake. Gainera, antigorputz neutralizatzaileen epitopoen eta konformazio egoeren egitura eta funtzio azterketek, aukera paregabea ematen dute antigorputz neutralizatzaileak sorraraziko dituzten txertoen diseinua burutzeko.



1.5 irudia. GIB-1aren aurkako bnAb-en konparaketa espektra vs potentzia grafikoaz. Pseudobirus saioen bitartez lortutako bnAb-en neutralizazioa, euren potentzia (antigorputz bakoitzak infekzioaren % 50a blokeatzeko beharrezkoa den kontzentrazioa, IC₅₀ balioa µg/mL-tan), espektraoren (panel handi bateko neutralizatutako birusen portzentaia) aurka irudikatuta. Erabilitako koloreak epitopoen espezifikotasunaren arabekoak dira, 1.4 irudian bezalaxe. Irudia, ¹⁰⁹ –tik egokitua.

1.2 ENV-EN OINARRITUTAKO IMMUNOGENOAK

Nahiz eta txertoen garapenerako metodo tradizionalak patogeno askoren aurka arrakasta handia izan duten, ez dira orain arte gai izan GIB-1aren aniztasun genetikoari aurre egiteko. Infekzio naturalaren prozesuan bnAb-ak sortzeak, baikortasuna sortzen du antigorputz hauek sorrarazteko gai diren txerto eraginkorren garapenerako. BnAb horien isolamenduak, haien epitopoen identifikazioak eta Env konplexuko egituren karakterizazioak, funtsezko informazioa ematen dute immunogenoen diseinu arrazionalerako.

Env, birusaren gainazalean kokatzen den bnAb-en antigeno bakarra izanik, txertoen diseinurako itu ezin hobea da. Horrenbestez, ahalegin izugarriak egin dira txerto moduan erabili daitezkeen Env-en oinarritutako immunogenoak ekoizteko. Horien artean, SOSIP.664 trimeroa ^{20,72,73,95} dago, antigenizitate profil bikaina duena; hau da, bnAb-ek modu eraginkorrean lotzen duten bitartean, antigorputz ez-neutralizatzaileek modu ahulagoan egiten dute ⁷¹. Nabarmentzekoa da Env-en oinarritutako lehen proteina txertoa izan zela “Tier 2” antigorputz neutralizatzaile autologoaren erantzuna sortzen, animalia modeloetan eta primateetan, baina ez zen espektro zabaleko antigorputz neutralizatzaileen erantzun esanguratsurik lortu ¹¹⁰.


Env trimeroan oinarritutako zenbait immunogeno, 1. faseko saiakuntza klinikoetan daude, SOSIP.664 barne. Hala ere, animaliekin egindako zenbait ikerketen arabera, SOSIP-erako trimero natiboek “arnasketa” konformazionala dute, V3 begizta immunodominantearekin lotzeak adierazten duen moduan ^{110–112}. Trimeroaren fusio aurreko konformazio itxia, orokorrean antigorputz neutralizatzaileek ezagutzen dutenez eta ez-neutralizatzaileek aldiz ez, zenbait saiakera burutu dira konformazio hau egonkortzeko helburuarekin ^{113–115}. Horietako bat, 4571 trimeroa da, DS-SOSIP bezala ere ezaguna. Trimero hau, egonkortu egin da eta V3 begiztaren esposizioa murriztu zaio C201-C433 disulfuro lotura gehituz ¹¹⁶. Hala ere, DS-SOSIPekin egindako akurien immunizazioek, V3 begiztara zuzendutako antigorputzen erantzun maila SOSIP.664arekin lorturiko antzekoa izan zela iradokitzen dute, eta ez zen antigorputzen neutralizazio heterologorik hauteman ¹¹⁷.

SOSIP-erako trimeroei buruzko beste kezka bat, andui espezifikoen immunodominantzia da; hau da, erantzun immunea batez ere, andui konkretu baten glikano zuloetara bideratuta egotea ^{118–120}. Arazo hau gainditzeko, GIB-1aren M taldeko SOSIP.664 trimerotik eratorritako Env-en adostasun-sekuentzia bat garatu zen, ConM SOSIP.v7 deiturikoa ¹²¹. Trimero honek, halaber, egonkortasun arazoak gainditzeko mutazio batzuk ere baditu. Dena dela, rhesus tximino eta untxietan egindako saio preklinikoetan ikusi da, SOSIP.v7k ez dituela 2. motako antigorputz neutralizatzaileak garatzen ¹²¹.

SOSIP-erako trimeroez gain, fusio aurreko egoeran egonkortutako eta mozketaindependenteak dituzten trimeroak ere aztertu izan dira immunogeno moduan. Horien artean, Env espikularen imitazioak diren NFLak ^{122,123} (ingelesezik *Cleavage-independent native flexibly linked*) eta UFO trimeroak ¹²⁴ (ingelesezik *uncleaved prefusion optimized*) daude. Biek gp120 eta gp41 artean lokarri malgua dute, eta SOSIP-erako trimeroen antzera, prolina bat dute gp41eko 1. heptada errepikakorrean. Biek erakutsi dute birus

autologoak neutralizatzeko gai diren antigorputzen bidezko erantzunak sortzeko gai direla ^{125,126}. C.6980 gp145 trimeroa da, fusio aurreko egitura egonkortzeko mutaziorik ez duen eta saio klinikoen 1. fasean dagoen Env trimero bakarra. Gainera, gp145 trimeroak, ukitu gabeko MPER domeinu osoa dauka, polilisina isats batera loturik dagoena. Bukatzeko, zenbait gp145 trimero erabili izan dira untxiak immunizatzeko, baina soilik 1. motako birusak neutralizatzeko gai ziren erantzunak lortu dira ¹²⁷. Laburbilduz, Env trimeroa imitatzen duten immunogeno hauek egitura aldetik egonkorak diren arren, ez dute espektro zabaleko erantzun neutralizatzailek eragitea lortu.

Azkenik, bnAb-en eta hauen epitopoen egituraren eta sekuentziaren informazioa konbinatuz, B zelula germinalak aktibatzekeo gai diren Env-en oinarritutako immunogenoen diseinua garatzea lortu da ¹²⁸. Antigorputzen heltze prozesua bideratzen duten antigenoen bitartekari garrantzitsuenak ezagutzeaz gain, garatzen ari den antigorputzaren leinuko bitartekari zein aitzindariak (lerro germinalean kodetzen diren aldaerak, "mutatu gabeko arbaso komuna" edo UCA) isolatzea (edo inferitzea) eta karakterizatzea ezinbestekoa da txerto hauek diseinatzeko. Helburu hau lortu ahal izateko, GIB-1az kutsatutako pazienteen segimendua infekzioaren etapa oso goztiarretatik egin beharko litzateke, espektro zabaleko erantzun neutralizatzaileira iritsi arte ¹²⁹⁻¹³¹. Hala ere, bnAb-en mutazio tasa altuak eta heltze prozesu luzeak, mota honetako immunogenoen diseinua oso lan neketsua bihurtzen dute. Are gehiago, zenbait kasutan, bnAb batzuen UCA gai da Env-en aldaera goiztiarrak batu zein neutralizatzeko; beste askotan ordea, ez dute neutralizatzeko gaitasunik, eta ez dira gai Env molekularen aldaera gehienak ezagutzeko ¹³²⁻¹³⁴. Hori dela eta, bnAb baten leinu espezifiko bat aktibatzekeo gai izango den immunogenoa, Env trimeroarekin alderatuta, oso desberdina izan daiteke da eta sarritan, hainbat immunogeno desberdin beharko dira bnAb-en heltze prozesua bideratzeko ¹³⁵.



1.6 irudia. “Egituren oinarritutako” immunizazio estrategia. Gaixoetatik isolatutako bnAb-ek Env trimeroetan kokatzen diren txertoen ituak definitzen dituzte (urdinez). Inferitutako bnAb-en aitzindariak (berdez) ez dituzte orokorrean trimero natiboak lotzen, lerro germinalaren aktibaziorako immunogenoen diseinua ezinbestekoa delarik. BnAb-en heltze prozesua gidatzeko, baliteke immunogeno desberdinak behar izatea, epitopo natiboen antza sekuentzialki handituz joango direnak. Antigorputzen bitartez balioztatu daitezke immunogeno hauek. Irudia ¹³⁶-tik egokitua.


Estrategia hau jarraituz txertaketa eraginkorra izan dadin, hainbat Env desberdinez buruturiko immunizazio sekuentzia beharko litzateke B zelula aitzindarien heltze prozesua espektro zabaleko bnAb-etara bideratzeko. Beraz, *prime-boost* txertaketa heterologoa estrategia ezin hobea izango litzateke; hau da, sistema immunea immunogeno batekin piztea eta erantzuna beste batekin edo batzuekin estimulatzea. Lehenbiziko immunizazioak (*prime*), bnAb espezifikoaren B zelula aitzindarien aktibazioa eta proliferazioa eragingo luke; eta hurrengo immunogenoek (*boost*) bnAb-en heltze prozesua gidatuko lukete. *Boost*-erako immunogenoak jatorrizko Env trimeroen antza handiagoa izango lukete, SOSIP-erakoak adibidez izan daitezke, edo soilik eskualde zaurgarri batean oinarritutako immunogenoak ere (1.6 irudia). Estrategia honek immunodominantzia arazoak gainditu beharko lituzke, soilik beharrezkoak diren egitura-osagaietara erantzuna zuzenduz ¹³⁶.

Lerro germinalera zuzendutako (GT, ingelesetik *germline targeting*) bi immunogeno 1. faseko saiakera klinikoetan daude gaur egun: eOD-GT8 60mer eta BG505 SOSIP GT1.1 gp140 trimeroa. eOD-GT aldagaiak, inferitutako VRC01 motako antigorputz germinalak afinitate handiz lotzeko diseinatu ziren ^{133,137}. eOD-GT8 zehazki, CD4bs-a aurkezten duen immunogenoa da, kanpoaldean VRC01 motako B zelula aitzindariak espezifikoki pizteko domeinua duena ^{137,138}. Animalia modeloetan lortutako emaitzek

eraginkortasuna erakusten zutenez, eOD-GT8 saiakera klinikoetan sartzea lortu zuen, non, nanopartikula hauek gai izan ziren VRC01 motako B zelula aitzindarien erantzuna pizteko. eOD-GT8 60mer immunogenoa erabili zen 1. faseko saiakuntza klinikoko hasierako datuek, erakutsi zuten VRC01 moduko B zelula aitzindarien aktibazio indartsua ematen zela. Saiakuntza klinikoko 1. fasean dagoen bigarren GT immunogenoa, BG505 SOSIP.664 trimeroan oinarritutako Env trimero bat da, erantzuna CD4bs eta V1/V2ra zuzentzeko GT mutazio batzuk dituen. BG505 SOSIP GT1.1 trimeroarekin immunizatutako saguak, CD4bs-era zuzendutako antigorputzak garatzea lortu zuten, BG505 SOSIP trimeroarekin lortu ez zena alegia ¹³⁹.

Laburbilduz, GIBaren aukako txerto eraginkor baten garapena oso urruti badago ere, Env-en oinarritutako zenbait hautagai berri ikertzen ari dira eta azkenaldian, immunogenoen diseinurako teknika eta ikuspegi berriak sortu dira. Beraz, kontuan hartzekoa da azken urteotan egin diren aurrerakuntzak txertaketa-estrategietan eta bnAb-en analisian, GIBaren aurkako txertoaren garapena eskuragarriago egotea ahalbidetu dutela.

1.3 MPER EPITOPOA




1.7 irudia. MPER-TMD domeinuko sekuentziaren kontserbazioa. GIB/SIV azpimota guztien MPER-TMDaren kontserbazio-maila, *Los Alamos National Laboratory* databasean eskuragarri dagoena. Sinbolo bakoitzaren altuerak, kokapen zehatz horretan aminoazido bakoitzak duen maiztasun erlatiboa adierazten du, eta sinboloen koloreak hidrofobizitatearen arabekoak dira: hidrofiliakoak (urdinez), neutroak (berdez) eta hidrofobikoak (beltzez). MPER epitopoa osatzen duten hondarrak laukizuzen arrosaren barruan irudikatu dira, eta TMDaren sekuentzia laukizuzen urdinaren barruan.

MPER, 24 aminoazido (662-683 hondarrak) dituen triptofanoetan aberatsa den eskualde hidrofobikoa da, zeinak gp41 ektodomeinua transmintz domeinuarekin konektatzen duen ¹⁴⁰ (1.7 irudia). Oso kontserbatua dagoen eskualde hau, gune zaurgarrien artean epitopo lineal bakar gisa identifikatu da ^{141,142}. Horrez gain, infekzio naturalean sortzen diren espektro zabaleko zenbait antigorputz neutralizatzaileen itua da; besteak beste, 2F5 ¹⁴³, 4E10 ¹⁴⁴, 10E8 ¹², DH511.2 ¹⁴⁵ eta LN01 ¹⁴⁶. MPER eremuan egindako mutazio eta delezioek, domeinu honek birusaren infekzio gaitasunean eta fusio prozesuan duen garrantzia zehaztu dute ^{140,147,148}. MPER eskualdearen topologia, mintzaren testuinguruaren arabera da; hala, Chol eta SM bezalako mintz lipidoak gai dira MPERak mintzak ezegonkortzeko duen gaitasuna modulatzeko ^{149,150}. MPERan kokatzen den eta triptofanoetan aberatsa den gune hidrofobikoa da mintzarekin elkarrengaitzen duena eta ondorioz, mintza ezegonkortzeko gaitasuna duena ^{151,152}.

Ezaugarri hauek guztiek MPER domeinua GIB-1aren aurkako txerto baten itu egokia bilakatzen duten arren, orain arte egin diren saiakera gutxiak potentzia baxuko eta espektro mugatuko antigorputzen ekoizpena soilik eragin dute ¹⁵³⁻¹⁵⁶.

1.3.1. MPERen aldakortasun konformazionala

Mintzen arteko fusioan duen funtsezko zeregina dela eta, MPER oso eskualde dinamiko da eta fusio prozesuan zehar gerta daitezkeen konformazio aldaketak jasateko egokitu dago. Ondorioz, nahiz eta Env-en inguruko hainbat ikerketa funtzional eta egiturazkoak egin diren, fusio aurreko MPER domeinuaren egitura atomiko zehatza ezezaguna da oraindik. Lehen aipatu den moduan, SOSIP.664 trimero disolbagarria egonkortzeko, beste aldaketa batzuen artean, 664 hondarraren osteko MPER domeinu hidrofobikoa ezabatu zen. Hori dela eta, hondar honetatik haratagoko gunearen informazio estruktural atomikoa falta da kristalizatutako egitura horretan. Are gehiago, Lee eta lankideek ⁷⁶ ebatzitako cryo-EM egituraren zoritxarrez, nahiz eta soilik domeinu zitoplasmatikoa faltan egon, MPER-TMD domeinuaren sekuentzia mizeletan integratua badago ere, desordenatuta ageri da eta ondorioz ez dago erabat ebatzita. Rantalainen eta lankideek ¹⁵⁷ MPERen ezegonkortasun, malgutasun eta agregazio arazoak neurri batean konpontzea lortu zituzten Env, lipido bizeletan ainguratuz eta antigorputzen bidez egonkortuz. Mintz lipidikoetan txertatutako Env-Antigorputz konplexua, cryo-EM bitartez aztertu zen eta lortutako emaitzek Env-en malgutasuna islatu zuten, MPER domeinura zuzendutako antigorputzek Env inklinatzen zutela frogatuz. Kasu honetan ere ez zen MPER eta TMD domeinuen egitura atomikoa ebatzerik lortu.



1.8 irudia. MPER-TMD domeinuaren hiru dimentsioko egitura lipido bigeruzetan. MPER-TMD domeinurako proposatu izan diren egitura desberdinen irudikapena, MPER (661-683 hondarrak) arrosaz eta TMD (684-709 hondarrak) urdinez, 1.7 irudian bezalaxe. **A)** Helize jarraiaren modeloa. **B)** TMD domeinuko N-muturraren tolespena duen eredua. **C)** MPER domeinuko N-muturrean helizearen tolespena duen eredua. **D)** Bi tolespen dituen trimero egituraren eredua. PDB kodeak hurrengoak dira: 6SNE (A), 2MG2 (671-693 hondarrak) eta 2MG1ren (671-693 hondarrak) gainjartzea (B), 7AEJ (C) eta 6E8W (D). Egiturak Chimera programa erabiliz irudikatu dira ¹⁵⁸.

Eskualde hauen egitura xehetasunak, MPER eta TMD peptido isolatuetatik lortu dira, baldintza desberdinak erabiliz eta erresonantzia magnetiko nuklearra (RMN), X izpien kristalografia eta cryo-EM tekniken bitartez. Lan gehienen arabera, MPER-TMD eskualdeak ongi definitutako konformazio α -helikoidala hartzeko joera du, baina topologia zein egoera oligomeriko desberdinekin.

Lehenengo egitura modeloak, etenik gabeko helize inklinatu bat bezala deskribatzen du MPER-TMD eskualdea, zeinetan TMDa mintzean zehar zabalduko litzateke, MPER mintzaren gainazalean geldituko litzatekeen bitartean (1.8 A irudia). Zenbait taldek berresten duten modeloa da, baina peptidoak hartzen duen egoera oligomeriko desberdinak deskribatu izan dira. Alde batetik, zenbait taldek, NMR bitartez, peptidoak DPC mizeletan txertatuta ¹⁵⁹ eta lipido ingurune batean, antigorputz batekin konplexua eratzen ^{146,157}, MPERek egitura monomerikoa duela deskribatu dute. Bestalde, Dev eta lankideek, peptidoa bigeruz lipidikoa imitatzen duen bizeletan, trimeroa eratzen duela frogatu dute ¹⁶⁰.

Bigarren egitura modeloaren arabera, MPER eta TMD domeinuaren arteko loturatik gertu helizea tolestuko litzateke (1.8 B irudia). NMRz, DPC mizeletan egindako ikerketa batean ikusi zen MPER domeinua mintzean inklinaturik kokatuko litzatekela 690. hondarrean tolestu arte ¹⁶¹. Kwonek eta lankideek aldiz, Chol-dun bigeruz lipidikoan 683. hondarrean ikusi zuten tolespena, baita NMR bitartez ¹⁶².

Hurrengo modeloaren arabera, helizea MPER domeinuaren N muturrean tolestuko litzateke, K665 eta N671 hondarren artean zehazki (1.8 C irudia). Berriki eginiko ikerketa batean, gp41en FP-TMD domeinua 2H10 antigorputzari lotuta ebatzi zen ¹⁶³. Egitura honetan, MPER domeinuaren helizea L669 hondarrean eteten zen. Helizearen etetea eskualde berdinean zuten MPERen egiturak ebatzi ziren mintz lipidikoetan ^{164,165} eta 10E8 bnAb-arekin lotuta ¹².

Azkeneko egitura modeloaren arabera, MPERek L formako egitura metaegonkorra hartuko luke (1.8 D irudia); hau da, MPER kurba malgu baina itxi batez loturiko bi helizetan banatuko litzateke, non hondar hidrofobikoak mintz biralean ezkutaturik egongo liratekeen, immunitate sistemaz babestuta ^{164,166,167}. Fu eta lankideek NMRz ebatzitako trimeroan, lehenengo helizea K665-N671 hondarrek osatuko lukete, eta karboxilo muturreko helizea, 683. posizioan tolestuko litzateke, TMDaren *coiled-coil* egiturarekin konektatzeko ¹⁶⁸.

Ikerketa desberdinetan proposatutako egitura modeloen aniztasun hau, posizio desberdin eta ez-natiboetan etenda dauden peptidoen erabileraren, hauen luzera desberdintasunaren edota horietako bakoitzean mintza imitatzeke erabilitako lipido motaren ondorioa izan daiteke. Halaber, hainbat egitura desberdin aurkitzeak, MPER-TMD eskualdearen malgutasuna islatzen du; hain zuzen, birus eta zelularen arteko fusio prozesuaren zenbait urratsetan garrantzitsua izan daitekeena.

1.3.2. MPER domeinura zuzendutako bnAb-ak

Infektatutako indibiduoetatik isolatutako MPER domeinuaren aurkako antigorputzak dira gizakion immunitate sistemak, GIBaren aurkako neutralizatzaileak diren erantzun espezifikoak sortzeko gai dela frogatzen duten ebidentziarik sendoena. Azpimarragarria da gainera, MPERen aurkako bnAb-ak modu pasiboan administratuta, birusaren infekzioaren aurkako babesa ematen dutela primatuetan ¹⁶⁹ eta neutralizazio erantzuna handitzen dutela gizakiotan ^{170,171}. Ezaugarri hauek, eskualde honek txertoen diseinurako duen potentziala azpimarratzen dute.

Lehenbizi isolatu ziren GIBaren aurkako bnAb-en artean, MPERera zuzendutako 2F5 eta 4E10 antigorputzak daude. 2F5k MPER domeinuko N muturrak osatzen duen azpieskualdea du helburu eta ez du oso espektro zabala aurkezten ¹⁴³. 4E10k aldiz, triptofanoetan oso aberatsa den C muturra ezagutzen du, GIB-1aren aurkako bnAb guztien artean espektrorik zabalenetarikoa erakutsiz ¹⁴⁴ (1.5 irudia ikusi).

2012. urtean 10E8a isolatu izanak, txertoen garapenerako MPER eskualdearekiko interesa piztu zuen. BnAb honen epitopoa, MPER eskualdearen C muturrean kokatzen da eta 4E10 zein 2F5k baino potentzia altuagoa eta espektro zabalagoa erakusten du¹². MPER domeinuaren C-muturrera zuzendutako hiru antigorputz berri aurkitu dira duela gutxi: VRC42, PGZL1 eta LN01^{146,172,173}.

Oro har esan daiteke, MPER domeinuaren N muturrera zuzendutako antigorputzek (2F5, Z13e1 eta M66.6) ez dutela oso espektro zabala aurkezten, C-muturrari zuzendutakoek berriz (4E10, 10E8, DH511.2, VRC42, LN01 eta PGZL1), GIB-1aren aurkako bnAb guztien artean, CD4bs-era zuzendutakoen antzera, espektrorik zabalena erakusten dute (1.5 irudia).

MPER, Env ektodomeinuaz birioiaren gainazalean esterikoki ezkutaturik dago, bere eskuragarritasuna murriztuz, antigorputzen iristea oztopatuz eta eskualdearen immunogenizitatea murriztuz. Anti-MPER antigorputzek beraz, zenbait ezaugarri garatu dituzte eragozpen esterikoak gainditzeko eta mintzean kokatzen den euren epitopoa ezagutzeko. 2F5 eta 4E10 antigorputzen eta gp41-lipido konplexuaren arteko batuketa, bi pausutako prozesu sekuentzial gisa deskribatua izan da¹⁷⁴. Antigorputzak Env glikoproteinarekin eta lipidoekin dituen lehenbiziko kontaktuak, Env-en inklinazioa eragiten dute eta honekin batera, MPER mintzetik apur bat ateratzea lortzen da bere esposizioa handituz. Hasierako urrats hau, MPER aldi baterako ikusgai bihurtzen du, antigorputzaren bidezko ezagupena faboratuz.

Jatorria edozein izanda ere, anti-MPER antigorputzek afinitatea lortzeko heldze prozesu luzeak jasaten dituzte. Hori dela eta, mutazio tasa altuak izaten dituzte eta baita ezohiko CDRH3 begizta luze eta hidrofobikoak^{12,175}. Antigorputz hauek, epitopoari batu ondoren, euren CDRH3 begiztak birusaren mintz lipidikoarekin elkar eragiten dute; nabarmenki, elkarrekintza hau funtsezkoa dirudi antigorputzen neutralizazio mekanismorako¹⁷⁶⁻¹⁷⁸. Poli- edota auto-erreaktibitatea erakutsi dezakete ere zenbait anti-MPER antigorputzek^{176,179}. Bereziki, 2F5, 4E10, VRC42.N1 eta PGZL1 bnAb-ek, mintzekin interakzio ez-espezifikoa izan ohi dituzte, konkretuki, karga negatibodun zenbait lipido propiori lotzen zaizkie^{103,172,173,180}. 10E8, LN01, eta DH511.2 bnAb-ek ordea, ez dute mintzarekin lotura ez-espezifikoa esanguratsurik erakusten; baina datu deigarria da, hain zuzen antigorputz hauek direla aurreneko taldearekin alderatuz, neutralizazio potentzia altuena erakusten dutenak. Honen arabera beraz, poli- edota auto-erreaktibitatea ez da MPERari zuzendutako antigorputz guztien ezinbesteko ezaugarria.

1.3.2.1 TMDa eta mintz-lipidoak MPER epitopoaren osagai gisa

Kristalografia eta cryo-EM erabiliz lortutako MPER-Fab konplexu askoren egitura atomikoak lipidoekin ebatzi izan dira ^{76,96,146,157,172,173,181}, MPER epitopoaren eta lipido ezagupenaren inguruko xehetasun baliotsuak emanez.

Aurretiaz aipaturiko ohiz kanpoko CDRH3 begizta luze eta hidrofobikoa, epitoporekin lotzeko garrantzitsua da; baina, begizta hidrofobikoenak ere, zuzenean elkarrekiten dute mintzaren lipidoekin ^{180,182}. Aipatzekoa da adibidez, 4E10 bnAb-aren CDRH3 eta CDRH1 begiztek interakzio espezifiko zuzena dutela glizerol fosfatoarekin, azido fosfatidikoarekin eta fosfatidil glizerolarekin ⁹⁶. Horrez gain, espontaneoki mintzei batzeko gaitasunik ez duten anti-MPER antigorputzek ere (10E8 kasu), lipidoekin elkarrekiteko edo hauei egokitzeko "poltsikoak" garatu dituzte, zeinak gai diren mintz birala osatzen duten fosfolipidoen buru polarrekin elkarrekintza ez-espezifikoak ezartzeko ^{96,178,181}.

Birusen TMDa, soilik mintzaren ainguraketan parte hartzen duela uste izan bada ere, osagai lipidikoaz gain, MPER epitopoaren funtsezko elementua dela ikusi da. GIB-1aren TMDa gainera, mintzeko ohiko ainguraketak baino kontserbatuago dagoela ikusi da ¹⁶⁰. Eskualde honen erdialdean kokatzen den kontserbatutako eta positiboki kargatutako R696 hondarra egoteak, soilik mintzaren ainguraketa baino funtzio garrantzitsuagoak iradokitzen ditu ¹⁶⁰. Uste da hondar honek, mintzen arteko fusio prozesuan, gp41 azpiunitateak jasaten dituen aldaketa konformazionalan, transmintz domeinuaren posizio inklinatua egonkortzen duela ^{183,184}. Zenbait ikerketen bitartez ikusi izan da TMDan egindako trunkazioek eta mutazioek mintzen arteko fusioan eta birusaren infektatzeko gaitasunean eragina dutela ¹⁸⁵⁻¹⁸⁷, prozesu horietan eskualde honek duen garrantzia nabarmenduz. Gainera, eginiko mutazio eta trunkazio horiek, espikularen nukleo hidrofilikoa aldaketak eragiten dituzte, Env-ekiko antigorputzen sentikortasunean eraginez eta baita TMDaren zenbait funtzio determinatuz: ainguraketa, egonkortzea eta espikula osoaren egitura zein antigenizitatearen modulazioa. Beraz, GIB-1aren immunogenoen diseinurako, TMD eskualdea funtsezko osagaitzat hartu behar dela dirudi ¹⁶⁰. Are gehiago, TMDaren presentziak eragin nabarmena du anti-MPER antigorputzek epitoporekin duten ezagupen espezifikoan, bereziki, 10E8 eta DH511.2 antigorputzen kasuan ^{178,188}.

Hori horrela izanda, transmintz domeinuaren hondarrek zein mintzeko lipidoek MPERera zuzendutako bnAb-en epitopoa osatzen dutela dirudi. Bi osagaiek, MPER-TMD egituraren konfigurazioan eta epitopoaren esposizioan parte hartzen dute, MPERen

egitura natiboa sustatuz. Halaber, mintz lipidoek immunogenizitatea areagotu ditzaketela frogatu da ^{189,190}. Guzti hau kontuan hartuta, mintz ingurunea kontserbatzea eta transmintzeko hondarrak gehitzea oinarritzakoa da MPER eremuan oinarritutako immunogenoen diseinurako.

1.3.3. MPER domeinuan oinarritutako txertoen saiakerak

MPER domeinuak dituen zenbait ezaugarri immunologiko, fisiko zein estrukturalak zuzenean eragiten dute bere immunogenizitatean; ezaugarri horien artean, gp120 azpiunitateak ezartzen dion ezkutaketa esterikoa, birusaren mintza eta bere hidrofobizitate altua daude. Ondorioz, MPER, soilik fusio prozesua aktibatu ostean aldi baterako ikusgai dagoela uste da, eta hala, B zelulen irisgarritasuna oso murriztuta dago. Hala eta guztiz ere, GIB-1ak eragiten duen infekzio naturalean, antigorputzen bidezko erantzun indartsua sortzen da domeinu honen aurka. Hori dela eta, nahiz eta MPER immunogeno bikaina izan, erakusten dituen zenbait ezaugarrien ondorioz, erronka handia suposatzen du GIB-1aren aurkako txertoen garapenerako itu moduan erabiltzeak.

MPERean oinarritutako txertoen garapenerako lehen saiakerak hurrengoak izan ziren: MPER epitopoa birus kimerikoetan sartzea, fusio-proteina moduan erabiltzea eta peptido txertoak garatzea ¹⁹¹. Baina, saiakera guzti hauetan, immunizatutako animalietatik, soilik neutralizatzaileak ez ziren MPERera zuzendutako antigorputz espezifikoak berreskuratu ziren. Fusio-proteinei dagokienez, adibidez, Hepatitis B birusaren S1 proteina MPERarekin fusionatuta erabili zen sagu eta untxiak immunizatzeke ¹⁵³, baina ez zen aktibitate neutralizatzaile berreskuratu animalien seroan. S1 proteinak nanopartikulak eratzeko gaitasuna duenez, antigorputzak hobeto elkartzeko MPERak behar duen ingurune lipidikoa ematen dio. Txerto peptidikoei dagokienez, 2F5 antigorputzaren epitopoa, toxoide tetanikoa moduko eramaile batekin konbinatu zen immunogeno moduan saguetan erabiltzeko, erantzun immune ez-neutralizatzaileak eraginez ¹⁹². Ikerketa horretan erabilitako sekuentzia bera, behi-gazur albuminarekin (BSA, ingelesetik *Bovine Serum Albumin*) ¹⁹³ eta T linfozito laguntzaileen epitopoarekin ¹⁹⁴ konbinatu ziren antzeko erantzun immuneak lortuz.

Anti-MPER bnAb-ek mintzarekin elkar eragiten dutenez, mintza imitatzen duten modeloak erabili izan dira domeinu honetan oinarrituriko txertoen garapenerako; horien artean, birusak imitatzen dituzten partikulak (VLP, ingelesetik *viral like particles*) eta

liposomak. Zenbait ikerketetan, MPER epitopoa N-muturretik moztuta, VLPetan txertatu zen eta saguak zein untxiak immunizatu ziren; berriz ere erantzun immune neutralizatzailerik lortu gabe ^{154,195}.

MPER domeinura zuzendutako txertoen garapenerako, liposomen erabileraren lehen saiakeretako batean, MPER peptido sintetikoa, fosfatidil inositol-4-fosfatoarekin (PIP) (lipido antigenoa) eta A lipidoarekin (adjuvantea) batera erabili zen saguak immunizatzeke ¹⁵⁵. Sagu hauen serotik, MPERekiko espezifikoak ziren eta baita lipidoak batzen zituzten bi IgM antigorputz monoklonal isolatu ziren, neutralizazio ahalmen ahula erakutsi zutenak. Jarraian, formulazio antzekearekin immunizatutako saguetatik, antigorputz monoklonal berri bat isolatu zen, MPERekiko espezifikoa eta GIB-1aren klado desberdinak neutralizatzeke gaitasuna zuena ¹⁹⁶.

MPER domeinura zuzendutako beste txerto hautagai bat, MPER-656 liposoma txertoa da, MPER peptidoa (656-680 hondarrak) liposometan ainguraturik duena ¹⁹⁷. Rhesus tximinoetan eta akurietan egindako immunogenizazio saioetan ikusi zen MPERekiko espezifikoak ziren antigorputzak sortzen zirela, baina ez 2F5 bnAb-en antzerakoak. Hala ere, gp140 proteina oligomerikoa, lehenbizi sistema immunea pizteke erabiliz eta jarraian, MPER-656 liposoma txertoaz immunizatuz, 2F5 motako erantzun immunea lortzen zela ikusi zen ¹⁵⁶. Ikerketa honen jarraipenean, gp140 proteina adierazten duen *vaccinia* birusa, gp140 proteina birkonbinatua, MPER-656 liposoma txertoa eta TLR agonista adjuvantetzat erabili ziren. Zoritxarrez, ez zen seroan lipidoen aurkako erantzunik aurkitu, ezta neutralizazio jarduerarik ere. Dena den, erabilitako immunizazio estrategia erabilgarria zela balioztatu zuten; hau da, Env-ekin sistema immunea piztea eta MPER duten liposomekin immunizazioa bultzatzea erabilgarria izan daitekeela ikusi zen. Are gehiago, B zelulen klon espezifikoak aktibatu, proliferatu eta heltzeko bulkada edo immunizazio gehigarriak erabakigarriak direla ikusi zen. MPER-656 liposoma gizakietan ebaluatu izan da HVTN 133 deituriko 1. faseko saiakera klinikoan. Fase hau berriki amaitu da, baina ez dago oraindik argitaratutako emaitzarik (<https://clinicaltest.gov/ct2/show/NCT03934541>).

1.4 HELBURU NAGUSIAK

Sekuentziaren kontserbazio maila altuak eta infekzio naturalean sortzen diren bnAb-en identifikazioak, $10E8$ kasu, MPER-TMD eskualdearen interesa nabarmen handitu da GIB-1aren aurkako txertoen garapenerako itu gisa. Zenbait saiakera egin dira MPERera zuzendutako txertoak garatzeko, baina anti-MPER bnAb-en titulu altuen indukzioak huts egun du orain arte. Txertoek arrakasta ez izatearen arrazoiatariko bat, bnAb-en indukzioa eragiten duen MPERaren egitura, oraindik ebatzia ez egotea izan daiteke. Fusio prozesuan zehar gp41 azpiunitateak izugarritzko konformazio aldaketa handiak pairatzen ditu, sistema immunea MPERaren konformazio askorekin kontaktuan egotea eragiten duena, MPER-Fab konplexuen kristal egitura anizkoitzetan ikus daitekeen bezala. Beraz, eskualde honen malgutasunak eta antigorputz neutralizatzaileak eragiten dituen konformazio zehatz ezezagunak, domeinu honetan oinarritutako immunogenoen diseinua zaildu egiten dute. Bestalde, mintzaren antzeko lipido ingurunean MPER eskualdearen konformazio egokia lortzeko sakon aztertu beharko litzateke lipidoek domeinu honen egituraren konfigurazioan, zein immunogenizitatearen modulazioan duten zeregina, baita osaera lipidiko zehatza eta adjubante egokia ere.


Guzti hau kontuan izanda, tesi honen helburu nagusia $10E8$ erako antigorputzen bidezko erantzuna eragiten duen MPER-TMDaren egitura zehatza imitatzeke behar diren baldintza egokiak definitzea litzateke, eskualde honetan oinarritutako immunogenoen diseinu arrazionalan laguntzeko.

1.4.1. Helburu zehatzak

- MPER-TMDan oinarritutako peptidoek mintzeko perturbazioak sortzeko behar duten egitura-oinarriaren zehaztapena, egitura antigenikoarekin alderatuz.
- Immunologikoki esanguratsuak diren MPER-TMDtik eratorritako peptidoen diseinua eta hauen errekonstituzioa lipido besikuletan.
- MPER epitopoaren esposizioa hobetzeko estrategien diseinua honako hauek aldatuz: i) konposizio lipidikoa eta ii) peptidoen sekuentzia.

2.KAPITULUA

TEKNIKA ESPERIMENTALAK



2. TEKNIKA ESPERIMENTALAK

Kapitulu honetan, tesi lan honen esperimentuak egiteko erabili diren teknikak eta protokolo orokorrak deskribatu dira. Teknika horiek, kapitulu bakoitzeko *teknika esperimentalen* atalean zehaztu dira.

2.1 LIPIDOETAN OINARRITUTAKO SISTEMA EREDUAK

Mintz biologikoak oso sistema konplexuak dira, lipido molekula anfipatikoen bigeruzaz osatuak daudenak eta baita proteina eta azukreak ere dituztenak. Konplexutasun altuaren ondorioz, oso zaila da mintza osatzen duten osagai bakoitzaren propietateak eta portaera aztertzea. Beraz, mintzen inguruko azterketa asko sistema ereduatan oinarritzen dira, mintz naturalen bertsio oso sinplifikatuak diren arren eta nahiz eta lortutako emaitzak ezin diren zuzenean sistema konplexuagoetara estrapolatu.

Lipidoetan oinarritutako sistema ereduak tamaina eta xafla edo lamela kopuruaren arabera sailka daitezke. Lamela bakarreko besikulak, esfera bat eratzen duen bigeruzak bakar batez osatuta daude, lipido bakarrekoak edo lipido nahaste batekoak izan daitezkeelarik. Lamela anitzeko besikulak (MLV, ingelesetik *multilamellar vesicles*) aldiz, diametro desberdina izan ditzaketen eta ur geruza mehe batez bereizita dauden lamela bakarreko zenbait besikulez osaturik daude. Lamela bakarreko besikulak hiru talde nagusitan sailka daitezke: lamela bakarreko besikula erraldoiak (GUVs, ingelesetik *giant unilamellar vesicles*), lamela bakarreko besikula handiak (LUVs, ingelesetik *large unilamellar vesicles*) eta lamela bakarreko besikula txikiak (SUVs, ingelesetik *small unilamellar vesicles*).

2.1.1. Liposomen ekoizpena

Lipido besikulak, liposomak bezala ere ezagunak, bi geruzaz osatutako egitura lipidikoak dira, barnealdean soluzio urtsu bat enkapsulatzen dutenak. Modu espontaneoan sortzen dira zilindro itxurako molekula lipidiko anfipatikoak soluzio urtsuetan diluitzen direnean, eta tratamenduaren arabera, lamela bakarreko edo ugariko bigeruzak izan ditzakete.

MLVak sortzea da liposomen ekoizpenerako metodorik sinpleena eta azkarrena, eta tesi honetan liposoma-peptido formulazioak (LPF) eta finkatutako lipido geruzak (SLB, ingelesezik *supported lipid bilayers*) ekoizteko erabili dira.

2.1.1.1 Lamela bakarreko besikula erraldoiak

GUVak, mintz-eredu interesgarriak dira euren tamaina handiagatik (5-100 μm inguru), zelula baten tamainarekin alderagarria dena. Horri esker, mikroskopia optiko egoki baten bidez aztertu daitezke, besikula bakarrean gertatzen diren gertakarien irudia lortuz.

Tesi lan honetan, GUVak fluoreszentzia mikroskopioz aztertuta, hurrengo saioetarako erabili dira: Fab birkonbinatuek peptidoa daramaten GUVak lotzeko duten gaitasuna aztertzeko, peptidoen errekonstituzio prozesuaren ostean mintzen egonkortasuna ebaluatzeko eta peptidoek lipido ordenan izan dezaketean eragina ikertzeko.

GUVak Shnirova eta lankideek ¹⁹⁸ deskribatutako berezko puztea (*spontaneous swelling*) metodoaren bitartez ekoiztu ziren. Protokolo zehatza jarraian deskribatua:

GUVak ekoizteko protokoloa

- 1) Lipido puruak kloroformoz diluitzen dira nahi den kontzentrazioan.
- 2) Behar den lipido kopurua (lipido bakarra edo nahasketa) beirazko saiodi batean gehitzen da.
- 3) Disolbatzaile organikoa, nitrogeno gasezko korrante batez lurruntzen da beirazko saiodiaren ondoan lipido geruza bat eratzen den arte.
- 4) Lagina huts ponpan lehortzen da ordu betez disolbatzaile organikoaren edozein aztarna erabat ezabatzen den arte.
- 5) Lipido lehorrez osatutako geruza 30 minutuz aurre-hidratatzen da H_2O ultrapuruaren fluxu leun batez.

- 6) Lipido geruza lehorra indargetzaile urtsu bat gehituz hidratatzen da. Jarraian, lagina irabiatu egiten da geruza lipidikoa askatzeko eta MLVen soluzio homogeneoa lortzeko. Lipidoak egoera likidoan daudela bermatzeko, lagina zein indargetzailea, lipido nagusiaren trantsizio tenperatura (T_m) baino tenperatura altuagoan mantendu behar dira.
- 7) Beharrezkoa denean, etanolez (etOH) edo 1,1,1,1,3,3-hexafluoro2-propanolez (HFIP) disolbatutako peptidoa, nahi den peptido-lipido erlazioan gehitzen da fase organikoan.
- 8) MLV soluzioaren 20 μ L hartu eta 40 μ m-ko diametroa duten silikazko mikroesferen (*bead*-ak) 5 μ L-rekin nahasten dira politetrafluoroetilenozko gainazal batean. Nahasketa homogeneizatu ostean, 2-3 μ L-tako tantatxotan banatzen da eta huts ponpan lehortzen da ordubetez.
- 9) Lipido-*bead* lehorrak pipeta baten punta erabiliz jaso eta A indargetzailea duen (5 mM HEPES, pH 7.4, sakarosa 3 g/L) beste punta batean murgiltzen dira. Besikulak eratzen direnean, A indargetzailea besikulen barnealdean geratuko eta behaketa-plakaren hondoan besikulak metatzea bermatuko du; izan ere, kanpo-indargetzailearekin alderatuz (5 mM HEPES, 150 mM KCl, pH 7.4), dentsitate altuagoa du. Bost minutuz, ur lurrunez asetutako ontzi batean jartzen da lipido-*bead* nahasketadun punta.
- 10) Hidratatutako lipido-besikulak kanpo-indargetzailea duen behaketa-plakara transferitzen dira.

2.1.1.2 Liposoma-peptido formulazioak (peptidoen errekonstituzioa mintzetan)

Lipidoez gain, mintzean kokatzen diren proteinak ere ezinbestekoak dira mintz biologikoen funtzioan. Proteina hauen jarduera, inguruko lipidoen egiturek modula dezakete; horrela, bigeruz a lipidikoaren osaketak eragina izan dezake mintz-proteinen arteko molekulen eta baita molekula barneko elkarrekintzetan. Horrez gain, mintzean kokatzen diren proteinen azterketa burutzea oso zaila da, disoluzioan agregatzeko joera izaten baitute. Proteina hauen errekonstituzioa mintz ereduetan beraz, aukera ematen du hauen analisia jatorrizko ingurunearen antzeko ingurune batean egiteko.

Tesi honetan, peptidoak mintzetan errekonstituitzeko jarraian deskribatutako protokoloa garatu eta puntuan jarri da. Protokolo honen bidez, MPER-TMD eremutik eratorritako peptidoak errekonstituitu dira immunologikoki esanguratsuak diren formulazioak diseinatzeko. Lortutako LPFak, lipido-peptido elkarrekintzak eta peptidoek mintzean eragin ditzaketen perturbazioak aztertzeko erabili dira.

LPFak ekoizteko protokoloa (peptidoen errekonstituzioa mintzetan)

- 1) Lipido puruak kloroformoz diluitzen dira nahi den kontzentrazioan.
- 2) Peptidoak etOHean edo HFIPean disolbatzen dira nahi den kontzentrazioa lortzeko.
- 3) Behar den lipido kopurua kloroformo:metanolean 1:2 (bol:bol) disolbatzen da eta aurrez disolbatutako peptidoarekin nahasten da, 1:50 edo 1:250 peptido-lipido erlazio molarrean.
- 4) Disolbatzaile organikoa, nitrogeno gasezko korrante batez lurruntzen da lipido geruza bat eratzen den arte.
- 5) Lagina huts ponpan lehortzen da ordu betez disolbatzaile organikoaren edozein aztarna erabat ezabatzen den arte.
- 6) Lipido lehorrez osatutako geruza 30 minutuz aurre-hidratatzen da H₂O ultrapuruaren fluxu leun batez.

- 7) Lagina fosfatodun indargetzailearekin (PBS, ingelesez *phosphate-buffered saline*) hidratatzen da eta nahasten da geruza lipidikoa askatzeko. Erabilitako tenperatura, nahastearen T_m -aren gaineratik egon behar da (normalean 55 °C).
- 8) MLVak bainu batean ordu betez sonikatzen dira nahasketaren T_m -a baino tenperatura altuagoan.
- 9) Azkenik, 15 aldiz izozten eta desizozten dira LPFak lamela bakarreko besikulak lortzeko.

2.1.1.3 Finkatutako lipido geruzak (SLBak)

SLBak euskarri solidoetan sortzea, oso prozedura erabilia da indar atomikozko mikroskopia (AFM, ingelesetik *atomic force microscopy*) bidezko mintzetan kokatzen diren peptidoen analisirak. Lan honetan, SLBak besikulen adsortzio metodoa jarraituz lortu dira eta AFM bidezko neurketa guztietarako erabili izan dira.

Besikulak adsorbatzeko metodoa, euskarri solido batean inkubatuz (mika hain zuzen lan honetan), liposomen berezko adsortzioan oinarritzen da. Liposomak euskarri solidoan inkubatzean, adsorbatu, deformatu eta zabaldu egiten dira bigeruzak lipidiko laua sortuz. Energia aldetik hain desfaboragarria den prozesu hau gertatzeko mekanismoa ez dago oraindik zehaztuta.

Lipidoen adsortzioa areagotzeko, jarraian deskribatutako zenbait jarraibide bete behar dira. Lehenik, besikula txikiak kurbadura-estres handia dutenez, hauen erabilpenak, besikulen xurgapena hobetzen du. Era honetan, besikulek mika ukitzean, mintz eredu hauen ezegonkortasun handiagatik, bigeruzak egoki baten hedapena eragingo dute. Horrez gain, Mg^{2+} edo Ca^{2+} bezalako katioi dibalenteak egoteak, erraztu egiten du mintz lauen hedapena liposometatik abiatuz. Azkenik, garrantzitsua da SLBak ondo garbitzea lipido agregatuak, fusionatu gabeko besikulak eta geruza gehigarriak kentzeko.

SLBen eraketa adsortzio metodoaren bitartez

- 1) LPFak kapitulu honetan deskribatutako *LPFak ekoizteko protokoloa* jarraituz prestatzen dira.
- 2) Mika orri bat (1,5 x 1,5 zm) epoxi itsasgarriarekin beirazko xafla batean itsasten da.
- 3) Mikaren gainazala, zinta itsasgarri arruntarekin garbitzen da eta ioi dibalenteak dituen (normalean 1 mM Ca⁺²) indargetzailea gehitzen da gainerik.
- 4) LPFak mikara gehitzen dira eta 30 minutuz inkubatzen dira adsortzioa gertatzeko.
- 5) Geruza gehigarriak, lipido agregatuak edo kaltzioa kentzeko, 5-10 aldiz garbitzen da indargetzailearekin.
- 6) SLBak AFM bidez eskaneatzeko prest daude.

2.1.2. Lipido kontzentrazioaren determinazioa


Eratutako besikulen fosfolipidoen amaierako kontzentrazioa zehazteko, fosforo ez-organikoaren kuantifikazioa erabili da. Prozedura hau, Fiskek garatu zuen 1925ean ¹⁹⁹ eta Bartlett ²⁰⁰ eta Böttcherek ²⁰¹ moldatu zuten beranduago eta fosfolipidoen hidrolisian oinarritzen den metodo kalorimetrikoa da. Fosfolipidoen hidrolisiaren ondorioz, fosfato taldea aske gelditzen da eta errektibo espezifiko desberdinekin erreakzionatzen du, hasierako kontzentrazioaren menpekota izango den produktu koloredun bat emanez.

Fosfolipido kontzentrazioaren determinaziorako protokoloa

- 1) NaH_2PO_4 soluzio batetik, 0, 25, 50, 75 eta 100 nmol fosforo pipeteatzen dira, bikoiztuta, saiodi desberdinetan, lipido kontzentrazio zehatza lortzea ahalbidetuko duen kalibrazio-kurba bat eraikitzeko.
- 2) Gutxi gora behera, 50 nmol fosfato duen LPF laginaren bolumen txiki bat beste saiodi batean gehitzen da.
- 3) Lagin guztiak 500 μL azido perklorikorekin (%70) nahasten dira, saiodiak irabiatu eta 205 $^\circ\text{C}$ -tan dagoen plakan kokatzen dira 45 minutuz fosfolipidoen hidrolisia gerta dadin.
- 4) Laginak giro tenperaturan (RT, ingelesetik *room temperature*) egon arte hozten uzten dira eta hurrengo soluzioak gehitzen dira:
 - a. Amonio heptamolibdatoan oinarritutako soluzioaren 4 mL (2.2 g/L amonio heptamolibdatoa $[(\text{NH}_4)_6\text{Mo}_7\text{O}_{24}\cdot 4\text{H}_2\text{O}]$ eta 14.3 mL/L azido sulfurikoa (H_2SO_4) % 95-98.
 - b. 500 μL azido askorbikoa (% 10).
- 5) Fosfato taldeek molibdatoarekin erreakzionatzen dute lehenbizi, eta azido askorbikorekin ondoren, produktu horixka bat sortuz. Hodiak 5 minutuz irakin ondoren, laginek kolore urdinerantz jotzen dute hasierako fosforo kantitatearen arabera.
- 6) Laginak hoztu ondoren absorbatzia neurtzen da 812 nm-tan.
- 7) Laginaren fosfolipido kontzentrazioa lortzeko, zuzen patroiaren absorbantziak fosforo kontzentrazioaren aurka irudikatzen dira eta lerro zuzen batera doitzen da. Zuzen honen maldatik eta laginen absorbatziak erabiliz, laginaren fosforo kontzentrazioa lortzen da.

2.1.3. Peptidoen txertaketa besikuletan: sakarosa gradiente bidezko LPFen flotazioa

LPFen flotazioa, metodo sinplea da errekonstituzio prozesuaren ostean (2.1.1.2 atalean deskribatuta) peptidoen txertaketa besikuletan efizientea izan den ikusteko. Lagina, sakarosa gradiente batean ultrazentrifugatu ondoren, besikuletan txertatutako proteinak, proteina askeetatik bereizten dira.



2.1 irudia. Peptidoen txertaketaren analisisia LPFen flotazioaren bitartez. Rodaminaz (Rho) markatutako LPFak 1.4 M-eko sakarosadun disoluzioarekin nahasten dira; ondoren, 0.8 M-eko sakarosa disoluzioa gainjartzen da eta azkenean, 0.5 M-ekoa, sakarosa gradiente bat eratuz (t_0). Lagina zentrifugatu ostean, elementu desberdinak dentsitatearen arabera bereizten dira eta lagina lau frakzioetan banatzen da (t_1). Liposomak (peptidoarekin edo peptidorik gabe) goiko frakzioan kokatuko dira eta peptidoaren txertaketa eman baldin bada, peptidoa ere besikulekin batera agertuko da. Bestalde, 1 eta SDS frakzioetan, flotatu gabeko materiala geratuko da, lotu gabeko peptidoa hain zuzen.

LPFen flotaziorako protokoloa

- 1) Sakarosa gradientearen prestaketa: Rho-z markatutako LPFen 100 μL -ei (1.5 mM-eko lipido kontzentrazioan eta 1:50eko peptido:lipido erlazioan) sakarosadun soluzioa gehitzen zaio, 300 μL -tan 1.4 M-ko kontzentrazioa doitu arte. Jarraian, 0.8 M (400 μL) eta 0.5 M-eko (300 μL) sakarosa geruzak gainjartzen dira.
- 2) Prestatutako sakarosa gradientea 436.000 xg-tan zentrifugatzen da hiru orduz.


- 3) Zentrifugatu ostean, 250 μ L-tako frakzioak jasotzen dira. Saiodietan itsatsita geratu den materiala berreskuratzeko, azkeneko frakzio bat jasotzen da 250 μ L % 1 sodio dodezil sulfato (SDS) beroa (100 °C) gehituz.
- 4) Peptidoaren presentzia, Tris-trizina SDS-PAGE-arekin (poliakrilamidazko gelean egindako elektroforesia) banatu ondoren, Western Blot teknikaren bitartez antzeman da frakzio desberdinetan.
- 5) Rodaminadun besikulen presentzia, Rho-ren fluoreszentsian oinarrituz zehaztu da.

2.1.4. Besikulen tamainaren zehaztapena DLS bitartez

Argiaren sakabanatze dinamikoa (DLS, ingelesetik *dynamic light scattering*) esekiduretako partikulen tamaina zehazteko neurketa-teknika zehatza da. Partikulen Browndar higiduran oinarritzen da; hau da, likido batean partikula txikiak azkarrago mugitzen dira; handienak aldiz, motelago. Partikulen abiadura, erradio hidrodinamikoa (R_h) neurtzeko erabil daiteke Stokes-Einsteinen ekuazioa erabiliz (2.1 ekuazioa).

$$D = \frac{K_B T}{6\pi\rho R_h} \quad [\text{Eq 2.1}]$$

non D difusio koefizientea den, K_B Boltzmann-en konstantea, T tenperatura, ρ ingurunearen biskositatea eta R_h partikula esferikoen erradio hidrodinamikoa.



2.2 irudia. PC:eggPA-CpreTM-TMD1 LPF besikulen populazioaren tamaina banaketaren grafikoa.

DLSak, laginaren bolumen txiki batetik erauzten du informazioa, denboraren arabera sakabanatutako argiaren fluktuazioetatik hain zuzen. Partikulen esekidura bati argi sorta batek eragiten dionean sortzen diren sakabanatutako argi intentsitateak neurtzen dira teknika honen bitartez. Intentsitate horiek, korrelazio funtzio bat ematen dute, eta funtzio horretatik abiatuz, zenbait algoritmo erabiliz, esekidurako partikulen tamaina banaketa lor daiteke (2.2 irudia). Besikulen tamainen banaketa homogeen edo heterogeenari buruzko informazioa, polidispersio-indize (PDI) lortzen da. PDIren balioa 0 eta 1 bitartekoa da, non zerotik hurbil dauden balioek soluzio homegeneoak adierazten dituzten.

Tesi honetan buruturiko DLS neurketak, Malvern Zeta-Sizer Nano ZS (Malvern Instruments, Malvern, Erresuma Batua) batean egin dira 0.6 nm eta 6 μ m bitarteko tamainetarako detekzio heinarekin eta 5 mW-eko He-Ne laser izpiarekin ($\lambda = 633$ nm). Sakabanatutako argia, laser izpiarekiko perpendikularki kokaturiko fotomultiplikatzailer batek detektatzen du. Azkenik, tresnaren software komertzialak emaitzak aztertzen ditu.


2.2 FAB-EN ADIERAZPENA, PURIFIKAZIOA ETA MARKAKETA

Intereseko proteina bat biokimikoki karakterizatzeko kopuru handia behar denez eta iturri naturaletatik lortu daitekeena gutxi denez, gainadierazpen birkonbinatua beharrezkoa izaten da. Proteinen ekoizpenerako, *E. coli* erabilienetarikoa adierazpen sistema da; duen kostu baxuagatik, hazkuntza zinetika azkarragatik eta lortzen den proteina etekin altuagatik, besteak beste. Hala ere, proteinen gainadirazpenerako *E. coli* erabiltzeak zenbait muga aurkezten ditu; hala nola, disulfuro zubiak edota bestelako itzulpen ondoko eraldaketak (PTM, ingelesezik *post-translational modifications*) burutzeko gaitasun eza.

2.2.1. Fab-en adierazpen eta purifikazioa bakterio zeluletan

E. coli-ren zitoplasmak ingurune erreduzitzailea du, disulfuro zubi egonkorren eraketa eragozten duena. Baina, disulfuro zubiak *E. coli*-ren periplasman eratu daitezke, non baldintza oxidatiboak bermatzen diren. Bertan daude DsbA eta DsbC deituriko entzima oxidatzaileak; lehenengoak, disulfuro zubien eraketa katalizatzen du, bigarrena, berriz, isomerasa aktibitateaz baliatzen da proteinen toleste natiboa bermatzeko ²⁰².

Disulfuro zubiek zenbait proteinen tolespen fisiologikoan eta euren funtzioan izugarritzko garrantzia dutenez, *E. coli*-ren T7 SHuffle ²⁰³ anduia sortu da ingeniarietza genetikoan. Andui hau, bere zitoplasman disulfuro zubien eraketa baimentzeko moldatuta dago; izan ere, thioerredoxin erreduktasa (*trxB*) eta glutathion erreduktasa (*gor*) entzimetan mutazioak eragin zaizkio, eta AhpC peroxidasaren entzima, disulfuro zubiak erreduzitzeko gai den AhpC* erreduktasa bilakatua izan da. Azken aldaketa honek ohiko oxidoerreduktasen ibilbide metabolikoak trunkatzearen ondorioz, zelulan eragindako hazkuntza arazoak konpontzen ditu. Azkenik, DsbC isomerasa entzima gehitu zaio bakterio hauen genomari. Isomerasa honen adierazpen konstitutiboak, intereseko proteinen toleste egokia bermatzen du.



2.3 irudia. pColaDUET-1 adierazpen plasmidoa. Bektore honek bi MCS kodetzen ditu, bakoitza T7 sustatzaile baten ondoren kokatua, aldi berean bi gene desberdinen (Fab-aren kate arina eta kate astuna kasu honetan) adierazpena ahalbidetzen duena. Horrez gain, lac operoia, ColA erreplikoia eta kanamizinen erresistentzia genea kodetzen ditu.

pCola-DUET-1 plasmidoa (2.3 irudia) erabili da T7-SHuffle zelulak transformatzeko. Kopia-kopuru txikiko plasmido honek, T7 sustatzaile bakar baten menpe dauden bi klonaziorako gune anizkoitz (MCS, ingelesetik *Multiple Cloning Site*) ditu (MCS1 eta MCS2); horri esker, klonatutako Fab-aren kate astuna (HC, ingelesetik *heavy chain*) eta kate arina (LC, ingelesetik *light chain*) ratio berean adierazi daitezke. Fab-aren HCaren N muturrean, histidina isatsa gehitu da eta jarraian, Tobacco etch birusaren (TEV) proteasaren mozketa gunea jarri da.

Tesi lan honetan, T7-SHuffle anduia eta pCola-DUET-1 plasmidoa erabili dira Fab 10E8 anti-MPER antigorputza ekoizteko. Jarraitutako estrategia honen bitartez, tolespen egokia duten Fab disolbagarri guztiz aktiboak ekoitzi dira.

Fab-en purifikazio protokoloa


- 1) T7-SHuffle zelula elektrokonpetenteak intereseko plasmidoarekin transformatzen dira kanamiznadun LB-agarrean.
- 2) Transformatutako zelulen kolonia bat jaso eta 1:1000 Kan duen 20 mL LB-tan inokulatzen da. Hazkuntza, gau osoz (ON), 37 °C-tan eta irabiaketa konstantean ematen da.
- 3) Hazkuntzaren 1:50 diluzioa, 1:1000 Kan-dun 1 L LB-tan inokulatzen da eta Fab birkonbinatuaren adierazpena, 18 °C-tan ON (16 orduz) indutitzen da, bakterioen dentsitate optikoa (OD) 0.8 ra iritsi ondoren, 0.4 mM isopropil-D-tiogalaktopiranosidoa (IPTG) gehituz.
- 4) Zelulak 8000 x g-tara zentrifugatzen dira eta ondoren, jalkinak bersuspenditzeko 50 mM HEPES (pH 7.5), 500 mM NaCl, 35 mM imidazol, DNasa eta proteasa inhibitzaileak (Roche, Madrid, Espainia) dituen indargetzailea gehitzen da.
- 5) Zelulak Avestin Emulsiflex C5 homogeneousatzaileaz apurtzen dira.
- 6) Zelula hondarrak zentrifugazioz bereizten dira eta gainjalkina nikelezko afinitate zutabetik (Ni-NTA) pasarazten da.
- 7) Histidina isatsaz zutabera itsatsitako proteinak 500 mM imidazol dituen indargetzailea erabiliz askatzen dira, kontzentratu, TEV proteasarekin (histidina isatsa ebakitzeko) nahastu eta 50 mM NaH₂PO₄ (pH 8.0), 300 mM NaCl, 1 mM DTT, eta 0.3 mM EDTA dituen soluzioan dializatzen uzten dira ON.
- 8) Fab-ak bigarren Ni-NTA afinitate zutabe bat erabiliz bereizten dira gainontzeko proteina eta TEV proteasatik. Jarraian, berriro kontzentratu eta indargetzailea aldatzen zaie (20 mM NaAc pH 5.6, % 10 glizerol) ON eta 4 °C-tan.

- 9) Azkenik, ioi trukeko kromatografia zutabe batetik pasazten da lagina. Itsatsitako proteina berreskuratzeko, KCl gradiente bat erabiltzen da. Fab-ak 4 °C-tan eta 10 mM NaH₂PO₄ (pH 7.5), 150 mM NaCl eta % 10 glizerola dituen indargetzailean kontserbatzen dira.

2.2.2. Proteinen zuzendutako markaketa

Proteinen zuzendutako markaketa funtsezkoa da molekula bakarreko fluroszentzian oinarritutako esperimentuak burutzeko. Aminekin erreakzionatzen duten konposatuez gain, irisgarri dauden zisteinetan tiolekiko erreaktiboak diren konposatuekin eginiko markaketa prozedura ere oso erabilia da. Tiolak (-SH) zisteina aminoazidoen albo kateetan aurkitzen direnez, proteina gehienetan daude, baina ez dira amina primarioak bezain ugariak. Beraz, zisteina bidezko markaketa selektiboagoa eta zehatzagoa da.

Maleimida taldeek zisteinetan aurkitzen diren sulfidril taldeekin espezifikoki erreakzionatu dezakete pH fisiologikoetan. Prozesu honetan, aminoazidoaren sulfuro atomoak (-SH taldea) iodoa (edo beste elementu halogenatu bat) ordezkatu du ordezkapen nukleofilikoaren bidez, tioeter lotura egonkor bat sortuz (2.5 irudia).



2.5 irudia. Maleimida eta sulfidril taldearen arteko erreakzioaren eskema. KK114, maleimida taldearekin lotutako fluoroforoa da. Magenta kolorez, -SH talde itua duen antigorputza ageri da.

Fab-etan zuzendutako markaketaren protokoloa

- 1) Zuzendutako mutagenesia erabiliz, posizio jakin bateko aminoazidoa zisteina batez ordezkatzeko da.
- 2) Zisteina askea duten mutanteak 1 mM DTT-arekin 30 minutuz, 37 °C-tan inkubatzen dira disulfuro zubiak eratzeko ez diren zisteinak erreduziteko.
- 3) Proteina eta agente erreduzizailea banatzeko, indargetzaile aldaketa burutzen da PD-10 zutabea erabiliz.
- 4) Fab-ak, maleimida duen Abberior STAR RED (KK114) molekularekin inkubatzen dira ON 37 °C-tan.
- 5) Azkenik, lagina zentrifugatzen (14.000 x g-tan 5 minutuz) da eta konjugatu gabeko molekula kentzeko, PD-10 zutabe batean zehar pasarazten da.

Tesi lan honetan, mikroskopia konfokaleko saioetarako, Fab-aren C216HC posizioa modifikatu da maleimida duen KK114 zundarekin.


2.3 TEKNIKA ESTRUKTURALAK

2.3.1. Dikroismo zirkularreko espektroskopia (DC)

CD oso teknika sentikorra da biomolekulen egitura sekundarioa (urrutiko UB bidez) eta tertziarioa (gertuko UB bidez) zehazteko; baita biomolekulen konformazio aldaketak eta egonkortasuna aztertze ere balio dezake. Teknika honen abantaila nagusiak hurrengoak dira: aztertu nahi den molekula kantitate txikian erabiltzen dela eta datuen analisia erraza dela. Desanbantailarik aipagarriena, proteinak soluzioan aztertu behar direla da; muga argia izan daitekeena mintz-proteinak euren jatorrizko ingurunean ikasteko.

CD, argiaren absortzioan oinarritzen den espektroskopia teknika bat da, zeinetan kromoforo batek, ingurune asimetriko batean modu zirkularrean ezkeralderantz eta eskuinalderantz polarizatutako argia xurgatzean ematen diren desberdintasunak neurtzen diren. Proteinetan agertzen diren kromoforo ohikoenak amida taldeak eta aminoazido aromatikoaren albo kateak dira. Absortzioaren ondorioz gertatzen diren trantsizio elektronikoek, uhin luzera eta intentsitate desberdina izango dute elektroiek espazioan duten kokapenaren arabera, eta honek proteinaren egituraren inguruko informazioa emango du.

Teknika hau, peptidoek mintz lipidikoak imitatzen dituen ingurune apolar batean duten egitura sekundarioa aztertze erabili da. Neurketak egiteko, Jasco J-810 espektrometroa erabili da, zeinaren ohiko kalibrazio prozedurak (1S)-(+)-10-azido kanforsulfonikoa eta amonio gatza erabiliz egin diren.



2.6 irudia. Proteina baten CD espektro adierazgarria. α -helize egiturek **(a)** minimo bikoitza erakusten dute 223 eta 208-210 nm-etan eta maximoa 191-193 nm artean. β egiturek **(b)** aldiz, 210 eta 225 nm arteko minimo bakarra dute, eta 190 eta 200 nm arteko maximoa, egitura paralelo edo antiparaleloaren arabera direnak. Ordenatu gabeko egiturek **(c)**, 200 nm inguruan dute minimoa. Irudia ²⁰⁴-tik egokitua.

CD saioetarako protokoloa

- 1) DMSO-n disolbaturiko peptidoak ON liofilizatzen dira eta indargetzaile urtsu (2 mM HEPES, 7.4 pH) batean hidratatzen dira 30 μ M-eko kontzentrazioa lortzeko, HFIP kontzentrazio desberdinekin (% 2.5, % 10 edo % 25 (v/v)).
- 2) CD espektroak, 190-260 nm artean, 25 °C-tan eta 1 mm-ko ibilbide luzera duen kuartzo gelaxka batean neurtzen dira. Datuak, 1 nm-tako banda zabalerarekin hartzen dira, 100 nm/min-ko abiadurarekin eta 0.2 nm bakoitzeko. Baldintza bakoitzerako 20 neurketa egin dira batez beste.
- 3) Atzeko zarata kendu ondoren, lortutako eliptikotasun seinalea (ϵ), hondarren batez besteko eliptikotasun $[\theta]$ bihurtzen da 2.2 ekuazioa erabiliz:

$$[\theta] = \frac{\epsilon}{10 \cdot c \cdot l \cdot n} \quad [\text{Eq. 2.2}]$$

non c peptidoaren kontzentrazio molarra, l bide optikoa eta n peptidoen lotura kopurua diren.

2.3.2. Espektroskopia infragorria (IR)

IR materiak xurgatzen duen erradiazio elektromagnetikoan oinarritzen den teknika da; erradiazio hau lotura kimikoen arabera izanik. Molekula organikoek 10000 eta 100 cm^{-1} arteko erradiazio infragorria xurgatzen dute eta bibrazio-energian bihurtzen dute. Xurgapenaren uhin luzera, atomoen masa erlatiboaren, indar konstantearen eta loturen geometriaren arabera dira.

1950ean Elliot eta Ambrosek²⁰⁵ teknika hau erabiltzea proposatu zuten proteinen egitura zehazteko. Mintzarekin asoziatuak diren proteinen egitura eta orientazioa zehazteko oso teknika erabilgarria da. Izan ere, beste teknika espektroskopiko batzuek ez bezala, bigeruzak lipidikoek ez dute neurketen bereizmen edota sentikortasuna mugatzen, mintz-proteinak euren jatorrizko ingurune lipidikoan aztertzeke aukera ematen duelarik.

Proteinen kasuan, lotura peptidikoek xurgatzen duten erradiazio infragorriaren ondorioz sortzen diren xurgapen bandak aztertzen dira, amida-banda deritzenak hain zuzen. Amida maiztasunak egitura desberdinekiko sentikorak diren arren, amida-I banda da proteinen konformazioa zehazteko gehien erabiltzen den bibrazio modua. Banda hau, 1600-1700 cm^{-1} artean kokatzen da, eta azpi-banda desberdinen gainjarpenagatik osaturik dago. Azpi-banda horietako bakoitza, peptidoak hartzen duen bigarren mailako egitura bati dagokio. Bandaren osagai bakoitzaren kokapena ezagutzeko, prozedura matematiko desberdinak aplikatzen dira (Fourier-en transformatua). Banden esleitzea, hau da, maiztasun bakoitza bigarren mailako egitura jakin batekin korrelazionatzea, peptido sintetikoaren neurketetan, kalkulu teorikoetan edo aurretiaz ezaguna den bereizmen altuko egitura tridimentsionalekin alderatuta lortzen da. Amida-I bandaren osagaien esleipen ohikoenak 1.1 taulan ageri dira.

Tesi lan honetan, IR teknika besikuletan errekonstituitu ostean peptidoek hartzen duten bigarren mailako egitura zehazteko erabili da. Neurketak eta datuen azterketa, I. de la Arada Dk.-arekin kolaborazioan egin dira.

1.1 taula. Amida-I bandaren osagaien esleipen ohikoenak D₂O-tan. Esleipen hauek ez dira finkoak, tarte bat onartu behar da peptido bakoitzaren baldintzen arabera.

Bataz-besteko maiztasunak (cm ⁻¹)	Esleitutako egitura
1622/1685	Luzatutako kateak/peptidoaren destolespena
1630	Helize solbatatua
1640	<i>Coiled-coil</i> egitura
1655	α-helizea
1675	β birak
1660	3 ₁₀ -helizea

IR bidezko LPFen bigarren mailako egituraren zehaztapena

- 1) LPFak 2.1.1.2 atalean deskribatzen den bezala prestatzen dira, 3 mg/mL-ko peptido kontzentrazioan eta 1:50eko peptido-lipido erlazioan.
- 2) LPFak liofilizatzen dira eta jarraian D₂O-n bersuspenditzen dira (H₂O-ak proteinen amida-I bandarekin gainjartzen den xurgapen banda sendoa dauka).
- 3) 25 µL-tako lagina bi CaF₂ leihoen artean jartzen da.
- 4) Espektoak, kadmio-telurido detektagailu bat eta Peltier-en oinarritutako temperatura kontrolagailu bat duen Thermo Nicolet Nexus 5700 espektrometroan erregistratzen dira (Thermo Fisher Scientific; Waltham, MA). Lagin bakoitzerako, 370 neurketa jasotzen dira eta espektoaren datuak 2 cm⁻¹-ko bereizmen nominalarekin lortzen dira. HFIPa duten laginetan, disolbatzailearen ekarpena jatorrizko espektrotik kentzen da analizatu aurretik.
- 5) Banda kopurua eta hauen kokapena espektoaren dekonboluziotik eta Fourier-en transformatutik lortzen dira.

2.4 FLUORESZENTZIAN OINARRITUTAKO MIKROSKOPIA AURRERATUA

Fluoreszentzia mikroskopia, interesko laginen handipen handiko eta kontraste handiko irudiak eskuratzeko tresna erabilgarria da. Ohiko epifluoreszentzia mikroskopio batean, argi iturri gisa lanpara bat erabiltzen da. Argia, objektiboaren aurretik aurkitzen den kitzikapen filtro batean zehar pasaratzen da uhin luzera zehatz batez. Objektibo berdinak igorritako fluoreszentzia jasotzen duenez, detektagailura iritsi aurretik filtro dikroiko baten bidez kitzikapen argitik bereizten da.

Epifluoreszentzia mikroskopio baten eragozpen nagusia, laginaren plano guztiak aldi berean kitzikatzen, jasotzen eta irudikatzen direla da. Honen ondorioz, ezinezkoa da plano fokal desberdinetatik ebatzitako irudiak sortzea.


2.4.1. Mikroskopia konfokala

Mikroskopia konfokalak sekzio optikoa ahalbidetzen du, foku-plano baten bereizmen handiko irudiak eskuratuz eta ondorioz, kontrastea izugarri hobetuz. Hori lortzeko, detektagailura iritsi aurretik, fokutik kanpo gelditzen den argia baztertzen du igorpen ibilbidean kokatutako irekidura optiko baten bidez. Foku-planoaren gaineko zein azpiko planoetatik datorren argia beraz, ez da jasotzen, eta honek eragin zuzena du irudiaren kontrastean. Gainera, mikroskopio optikoan argi iturri gisa erabiltzen den lanpara, laser batekin ordezkutzen da, fokoaren bolumena asko txikitzen delarik.

2.7 irudian ageri dira fluoreszentiako mikroskopio konfokal baten osagai nagusiak. Mikroskopio mota hauetan, ispilu dikroiko batera zuzendutako laser izpi batek kitzikatzen du lagina. Ispilu dikroiko honek, objektiboaren bidez laginera zuzenduko den argia aukeratzen du. Molekula fluoreszenteak kitzikatzean igortzen den fluoreszentzia, aipaturiko ispilu dikroiko horretatik bideratzen da irekidura optiko batetik igaroz. Irekidura optiko honi esker, foko barruko fluoreszentzia detektagailura pasatzea utziko du, fokutik kanpoko fluoreszentzia aldiz, blokeatuko duelarik.

Tesi lan honetan, Nikon Eclipse TE-2000 fluoreszentzia konfokaleko mikroskopioa (Nikon Instruments, Tokio, Japonia) erabili da GUV-LUV fusio heterotipikoko saioetarako, KK114 molekula fluoreszenteaz markatutako Fab-en eta peptidodun GUVen arteko lotura zehazteko eta iragazkortasun saioetarako. 63 x handipena duen olio-murgiltze objektiboa (1.2 irekidura optikoarekin (NA)) erabili da.

Azkenik, fluoreszentzia igorpenaren analisia, ImageJ softwarearekin burutu dira ²⁰⁶.




2.7 irudia. Fluoreszentzia mikroskopio konfokal baten osagai nagusiak.

2.4.1.1 GUV-FTV fusio heterotipikoa

Mintzen arteko fusio prozesu guztietan, besikulen arteko edukia nahastu aurretik zenbait urrats gertatu behar dira. Fusio prozesu guztietan presente dagoen ezinbesteko urratsa, mintzen arteko lipidoen nahasketa da.

Lan honetan, zelula plasmaticoaren kanpo-mintzaren konposizioa eta kurbadura imitatzen duten eta NBD fluoroforoaz markatuta dauden GUVak, eta MPEP-TMD domeinutik eratorritako eta rodaminaz markatutako LPFak erabili dira. Bi populazioen arteko fusioa gertatuz gero, GUVen mintza LPFen zunda fluoreszentearekin homogeneouski markatuko litzateke (2.8 irudia).

Peptidoen errekonstituzioa eman ondoren, LPFen egonkortasuna aztertzeke erabili den saioa da, behean deskribatutako protokoloa jarraituz.



2.8 irudia. GUV-LPF arteko fusio heterotipikoaren saioaren adierazpen eskematikoa. NBDaz markaturiko GUVak Rho-z LPFekin inkubatzen dira. Fusioa gertatzen bada, Rho GUVen mintzera transferitzen da.

GUV-LPF fusio heterotipikoaren protokoloa

- 1) MPER-TMDtik eratorritako peptidoak dituzten (1:50 peptido-lipido ratioan) eta Rho-z (% 0.5) markatutako LPFak, 2.1.1.2 atalean deskribatzen den moduan sintetizatzen dira.
- 2) POPC:Chol:SM (2:2:1 mol:mol) eta NBD-PE % 2-dun konpozioa duten GUVak 2.1.1.1 atalean deskribatzen den moduan sintetizatzen dira.
- 3) Behaketa-platertxoak, 0.5 g/L BSArekin, gutxienez 15 minutuz blokeatzen dira.
- 4) Irudiak hartu aurretik, GUVak eta LPFak 15 minutuz inkubatzen dira.
- 5) NBD zundarekin markatutako GUVak 476 nm-ra kitzikatzen dira, eta Rho-rekin markatutako LPFak 514 nm-ra. Igorritako fluoreszentzia bi kanaletan jasotzen da, 515/30 nm-tan eta 590/94 nm-tan, NBD eta Rho-rentzat, hurrenez hurren.
- 6) FTV-GUVen fusionatutako area erlatiboak lortzeko, Rho-ren fluoreszentzia neurtzen da GUVen irudien plano ekuatorialean zehar.

2.4.1.2 Molekula bakarreko iragazkortasun saioak

Mintzean aktiboak diren peptidoek, lipido mintzetan lesio zein perturbazioak eragin ditzakete. Zunda fluoreszenteak, peptidoarekin mintzak tratatu ostean, molekulen barneraketa besikuletara edo askapena neurtzeko erabili daitezke.

Tesi lan honetan, peptidoa daramaten NBDz markatutako GUVak eta KK114 zunda fluoreszente askea erabili dira peptidoen errekonstituzioaren osteko GUVen egonkortasuna aztertzeko. Peptidoek, GUVaren mintza hausten badute, kanpoko soluzioan dagoen zunda GUVetara barneratuko litzateke.

Molekula bakarreko permeabilizazio saiorako protokoloa

- 1) MPER-TMD domeinutik eratorritako peptidoak dituzten eta NBDz (% 2) markatuta dauden GUVak 2.1.1.1. atalean deskribaturik dagoen moduan sintetizatzen dira.
- 2) Behaketa-platertxoak 0.5 g/L BSArekin, gutxienez 15 minutuz blokeatzen dira.
- 3) Irudiak hartu aurretik, peptidodun GUVak eta KK114 zunda, 15 minutuz inkubatzen dira.
- 4) NBDaz markatutako GUVak 476 nm-tan kitzikatzen dira, eta KK114 zunda 637 nm-tan. Igorritako fluoreszentzia bi kanaletan jasotzen da: 515/30 nm-tan eta *Long Pass* 650 nm-tan, NBD eta KK114 zundentzat hurrenez hurren.
- 5) Besikula bakoitzerako iragazkortasun gradua hurrengo ekuazioa erabiliz kalkulatu da:

$$\text{Iragazkortasuna (\%)} = \frac{F_{\text{barnean}}}{F_{\text{kanpoan}}} \cdot 100 \quad [\text{Eq. 2.3}]$$

non F_{barnean} eta F_{kanpoan} barneko eta kanpoko KK114ren fluoreszentzia-intentsitateen batezbestekoa diren, hurrenez hurren.

2.4.1.3 Peptidodun-GUV eta Fab-en arteko lotura saioak

Mintzeko lipidoek, mintzean kokatzen diren proteinen egitura modulatzeko gaitasuna dute; eta ondorioz, hauen funtzioan ere eragin dezakete ²⁰⁷.

Lan honetan, 10E8 Fab-a eta haren aldaerak erabili dira MPER epitopoak lipido konposizio desberdineko GUVen mintzean duen irisgarritasuna aztertzeko.

Saio hauetan, Fab-ak KK114 zundarekin markaturik daude eta GUVak NBDarekin. Fab-en lotura GUVetara orduan, KK114ren igorpena neurtuz kalkulatzen da. Hau da, bien arteko lotura gertatuko balitz, GUVaren mintza KK114 zundarekin markatuko litzateke.

GUV-Fab lotura saioetarako protokoloa

- 1) MPER-TMD domeinutik eratorritako peptidoak dituzten eta NBDz (% 2) markatuta dauden GUVak 2.1.1.1. *atalean* deskribaturik dagoen moduan sintetizatzen dira.
- 2) KK114 zundaz markatutako Fab-ak 2.2 *atalean* deskribatutako protokoloa jarraituz purifikatu eta markatzen dira.
- 3) Behaketa-platertxoak 0.5 g/L BSArekin, gutxienez 15 minutuz blokeatzen dira.
- 4) Behaketa platertxoetan 0.25 μ M Fab gehitzen dira.
- 5) GUVak jadanik Fab-a daukaten behaketa platertxoetara gehitzen dira eta irudiak hartu aurretik, 15 minutuz inkubatzen dira.
- 6) NBDa 476 nm-tara kitzikatzen da eta KK114a 637 nm-tara. Igorritako fluoreszentzia bi kanaletan jasotzen da: 515/30 nm-tan eta *Long Pass* 650 nm-tan, NBD eta KK114 zudentzat hurrenez hurren.

- 7) Lagin guztien irudiak kontraste eta distira berdinarekin lortzen dira, igorpen intentsitatean egon daitekeen aldea hobeto hautemateko.
- 8) GUVetan dagoen KK114 zundak igortzen duen fluoreszentiaren kuantifikazioa, ImageJ programarekin burutzen da.

2.4.1.4 Bereizmen altuko STED mikroskopia bidezko neurketak

Fluoreszentzia mikroskopioak, difrakzioari dagokionez, sistema mugatuak dira; hala ere, badira muga hori gainditzen saiatzen diren zenbait teknika. Igorpen estimulatuaren txikiagotzean oinarritzen den mikroskopia (STED), fokuaren inguruan dauden fluoroforoen ezabaketaren bitartez, azpi-frakzioen ebazpena ematen duen teknika nanoskopikoa da. Teknika honen bitartez lortzen den bereizmen espaziala 40 nm baino baxuagokoa da, GIBaren birioien tamaina (100 nm gutxi gorabehera) baino baxuagoa alegia. Honi esker, antigorputzaren eta birus partikularen seinaleak bereiz daitezke.

STED teknika bidez neurtutako Anti-MPER antigorputzen lotura GIB-1 birioietara, P. Carravilla DK.-ak burutu zituen C. Eggeling Dk.-aren laborategian (Oxford Unibertsitatea (Erresuma Batua)). Erregistratutako fotoi kopurua zuzenki erlazionaturik dago molekula fluoreszenteen kuantitatearekin; beraz, antigorputzen eta birioien arteko lotura kuantifikatzeko aukera ematen du.

Irudiak, Abberior Instrument RESOLFT QUAD-P bereizmen altuko mikroskopioarekin egin ziren. Fluoreszentiaren kitzikapena, oliotan murgildutako 100 x /1,40 NA objektiboaz egin zen (Olympus Industrial, Southend-on-Sea, Erresuma Batua). Fluoreszentzia seinalea, irekidura doigarri batetik igaro zen (Thorlabs Limited, Ely, Erresuma Batua). Datuak eskuratzeko egindako eragiketa guztiak Inspector software (Abberior Instruments) batez kontrolatu ziren.

Fab-en lotura birioietara STED mikroskopia erabiliz

- 1) Pseudobirus fluoreszenteak (PsV), 15 µg pCHIV Env(-), 1 µg EGFP Vpr eta 2.5 µg JRCSF Env plasmidoekin HEK293T zelulak ko-transfektatuz eta purifikatuz lortzen dira (2.7.1 atalean jarraian deskribaturik dagoen moduan).
- 2) Purifikatutako birus-partikulak, poli-L-lisinaz estalita dauden beirazko estalkietan itsasten dira 15 minutuz.
- 3) Estalkiak blokeatu egiten dira gantz-azidorik gabeko BSA (% 2) erabiliz 15 minutuz.
- 4) KK114 zundaz markatutako Fab-ak (0.5 µM) gehitzen dira eta ordu batez inkubatzen dira.
- 5) Zenbait garbiketa burutzen dira PBS-z eta jarraian STED bidezko analisisia burutzen da.
- 6) KK114 zunda 640 nm-tan kitzikatzen da pulsatutako laser batekin, eta agortu 775 STED laserrarekin. EGFPa 488 nm-tan kitzikatzen da pulsatutako laserrarekin. Emisioa, 650-700 nm-tako (KK114ren seinalerako) eta 501-552 nm-tako (EGFPren seinalerako) fluoreszentzia iragazkiak dituen elektro-oldezko fotodiodoarekin jaso egiten da.
- 7) Irudiak aztertzeko, Python hizkuntza erabiliz eta funtzio pertsonalizatuak dituen aurrez garatutako programa batekin burutzen dira ⁴⁴.

2.4.1.5 Laurdanen polarizazio orokorraren neurketak

Jarraian deskribatutako ezaugarriak betetzen dituzten zunda fluoreszenteak egokiak dira mintzaren ordena molekularra kuantifikatzeko. Lehenik, oinarrizko eta kitzikatutako egoeren arteko desberdintasuna handia izan behar da. Horrez gain, mintzarekin interakzionatzeko gaitasuna izan behar dute eta bigeruzaren interfasean propietate fluoreszenteak izan behar dituzte. Geruza lipidiko trinkoetan, non ura ez den mintzera iristen, giro apolarra nagusitzen da. Aitzitik, jariakortasun altuagoa duten mintzetan, non interfasea oso hidratatuta dagoen eta giro polarra nagusitzen den, fluoreszentzia igorpena gorrira desplazaturik dago, mintz zurrun edo trinkoekin alderatuz. Beraz, ingurunearekiko sentikorrak diren zunden espektroaren desplazamendua, mintzaren hidratazioaren eta biskositatearen araberako da.

Laurdanek oraintxe aipaturiko propietate guztiak betetzen dituen eta naftalenoaren egiturari oinarritzen den zunda sentikorrenetako bat da. Laurdanek elektro-emaile bat (amino alkilo taldea) eta hartzaile bat (aziloak ordezkaturiko karbonilo taldea) ditu 2. eta 6. posizioetan, hurrenez hurren. Ezaugarri honek, dipolo-momentu esanguratsu bat ematen dio, disolbatzaile polarretan duen karga banaketatik ²⁰⁸. Laurdan kitzikaturik dagoenean, bere dipolo-momentua handitu egiten da eta inguruko dipoloen kokapena aldatu ditzake. Kokapen aldaketa honek murriztu egiten du kitzikatutako egoeraren energia eta ondorioz, igorpen espektroan aldaketa ikusten da.

Polarizazio orokorraren (GP, ingelesetik *general polarization*) funtzioa, Parasassik proposatu zuen 1990ean ²⁰⁹ eta Laurdanen igorpen espektroaren aldaketa aztertzeko erabili ohi da. Igorpen espektroaren aldaketa hau, bigeruz oso trinkoetatik (hidratazio baxukoak) bigeruz jariakorretara (oso hidratatuak) pasatzean ematen da, edo alderantziz. 2.4 ekuazioa aplikatuz, GParen kuantifikazioa burutu daiteke, mintzaren ordenaren inguruko informazioa lortuz.

$$GP = \frac{I_B - G \times I_R}{I_B + G \times I_R} \quad [\text{Eq. 2.4}]$$

non I_B eta I_R emisio espektroaren ertz urdineko eta gorriko igorpen intentsitateak diren, hurrenez hurren eta G kalibrazio faktorea den. G faktorea, baldintza desberdinetan lortutako GP balioak normalizatzeko erabiltzen da eta hurrengo ekuazioaren bidez kalkulatu da (2.5 ekuazioa):

$$G = \frac{GP_{ref} + GP_{ref}GP_{mes} - GP_{mes} - 1}{GP_{mes} + GP_{ref}GP_{mes} - GP_{ref} - 1} \quad [\text{Eq. 2.5}]$$

non GP_{mes} Laurdan purua demetildulfoxidoan (DMSO) disolbatutakoaren GP balioa den baldintza esperimental berdinetan neurtuta, eta GP_{ref} ezarritako erreferentzia balio bat den, hain zuzen, $GP_{ref} = 0,207$ ²¹⁰.

GP neurketak P. Carravilla Dk.-arekin lankidetzan egin ziren eta MPER-TMD domeinutik eratorritako peptidoek mintz lipidikoaren ordenan eraginik duten aztertzeke erabili dira.

Irudiak Leica TCS SP5 II mikroskopia batean eskuratu ziren (Leica Microsystems, Wetzlar, Alemania).

2.5 MIKROSKOPIA ELEKTRONIKOA

Mikroskopia elektronikoak (EM), ikusi nahi den objektua argiztatzeko elektroikano bat erabiltzen duen mikroskopia mota bat da. Mikroskopia optikoan, argi ikuskorraren erabilerak bereizmena mugatzen du, argi mota honen uhin luzeragatik hain zuzen. Zenbat eta txikiagoa izan argiaren uhin luzera, orduan eta handiagoa da haren bereizmen ahalmena. Hala, elektroikano baten uhin luzera argi fotoiena baino 10000 aldiz txikiagoa izan daitekeenez, mikroskopia elektronikoek mikroskopia optikoek baino bereizmen ahalmen handiagoa dute.

Oro har, mikroskopia elektronikoek, tungstenozko harizpi bat duen elektroikano batek eragindako tentsio altuko elektroikano sorta bat erabiltzen dute elektro-iturri gisa. Elektroiak mugiarazteko, 100 kV eta 1000 kV bitarteko azelerazio tentsioa aplikatzen da tungsteno harizpiaren eta anodoaren artean. Elektroiak laginetik pasatzen direnean, laginaren lodieraren eta errefrakzio indizearen arabera sakabanatzen dira.

Mikroskopia elektronikoen bidez ikertu nahi diren laginek tratamendua beharko dute erradiazioa murrizteko, hutsak eragin dezakeen kalteak murrizteko eta kontrastea areagotzeko. Laginen tratamendurako teknirik erabilienak, tindaketa negatiboa eta laginaren izozte arina dira. Lehenengoan, lagina elektroidun soluzio opakuan batean murgiltzen da, amonio molibdato edo uranil azetatoan adibidez. Bigarrena, kriomikroskopian erabiltzen den metodoa da, zeinetan lagina etano likidoan murgildu eta

berehala izozten den izotz beirakara sortuz (ez-kristalinoa), tindaketarik gabe lagina ikusi ahal izango delarik.

EM neurketak I. Tascón Dk.-rekin kolaborazioan egin dira. Tesi lan honetan, teknika hau MPER-TMDtik eratorritako peptidoek besikulen morfologian duten eragina aztertzeko erabili da.

EM saioetarako erabiliko den LPFen kontzentrazio optimoa zehazteko, laginak tindaketa negatiboz prestatu ziren. Laginen 8 μ L kobrezko sareetan adsorbatu ziren eta negatiboki tindatuak izan ziren % 1 uranilo formolarekin. Ondoren, Orius SC1000 (4008 \times 2672 pixel) kamera zuen JEM-1230 transmisio EM (JEOL Ltd., Tokio) batekin egin ziren irudiak, 20000 x handipenarekin.

Jarraian, behin laginak eta euren kontzentrazioa aukeratuta, 200 kV-etan lan egiten duen elektroien kanoi bat zuen JEM -2200FSC transmisio EM (JEOL Ltd. Tokio) baten bidez analizatu ziren. Aurretiaz, lagina beiratzatzeko, 4 μ L-ko alikuotak gehitu ziren PDC-002-CE plasma garbigailuarekin 5 segunduz tratatutako Quantifoil R 2/2 eta C-flat R 1.2/1.3 kobrezko sareetan. Saretak Leica EM GP2 (Leica Microsystems GmbH, Wetzlar) izozkailu automatikoaz etano likidoan sartu ziren. Irudiak dosi txikiko baldintzetan eta 4 K x 4 K UltraScan 4000™ CCD kameraz (Gatan Inc.) 50000 x-ko handipenarekin egin ziren.

2.6 INDAR ATOMIKOKO MIKROSKOPIOA

Indar atomikoko mikroskopia (AFM, ingelesetik *atomic force microscopy*) bereizmen altuko irudi teknika bat da. Laginaren gainazala eskaneatzean oinarritzen da, honen irudi topografiko bat eratuz. Mintz biologikoen topografiaren informazioa, 1 nm baino albo bereizmen txikiagoarekin eta 0.1 eta 0.2 nm arteko bereizmen bertikalarekin lor daiteke metodo hau erabiliz. Gainera, teknika honi esker, laginaren propietate mekaniko, kimiko eta funtzionalak azter daitezke.

konstante baxuagoa, orduan eta txikiagoa izango da puntak laginean eragindako indarra.

Euskarri solidoa behar bezala hautatzea eta prestatzea ere oso garrantzitsua da geruza lipidikoak bezalako egitura bigunak neurtzen direnean. Hain zuzen, mintz lipidikoak AFMz neurtzeko euskarririk erabiliena moscovite mica (Mica) da, karga negatibodun euskarri hidrofilikoa alegia. Irudi garbia eta egokia lortzeko, lagina inkubatu aurretik, mika atomikoki laua izan behar da; hori lortzeko, goiko orriak zatitu eta garbitu behar dira. Elementu hauez gain, eskaneatzeko abiadura, angelua, puntarekin aplikatuko den indarra zein indargetzailearen baldintzak behar bezala kontrolatu eta hautatu behar dira.

AFM bidezko neurketak bi modutan egin daitezke: ukipen moduan eta ukipena modu intermitentean izanik.

Ukipen moduan

Ukipen moduan, punta beti dago laginarekin kontaktuan. Aplikatutako indarra konstantea da piezoaren posizio bertikala etengabe zuzentzen duen atzeraelikadura-sistema baten ondorioz, era honetan laginaren topografian dauden aldaketak hautemanez. Deflexio bertikalean ematen diren aldaketa horiek, luzera unitate bihurtzen dira altueren irudia eraikitzeko. Eskaneatzeko oso modu arrunta da, baina laginarekin duen etengabeko ukipenaren ondorioz, honen hondapena gerta daiteke indar handiegiak aplikatuz gero.


Tesi lan honetan egindako esperimentu guztietan erabili da ukipen-modua.

Ukipena modu intermitentean izanik

Eskaneatzeko modu honetan, puntak disoluzioan oszilatzen du erresonantzia maiztasun finko batekin. Hegalaren oszilazioan, puntak behin baino ez du gainazala ukitzen, eta jarraian, lehenengo posiziora bueltatzen da hurrengo oszilazio ziklorako. Puntak lagina ukitzen duenean, seinalearen anplitudean aldaketa ikusten da, eta aldaketa hauek erabiltzen dira irudi topografikoa eraikitzeko. Punta eta laginaren arteko ukipen denbora oso laburra denez, alboko marruskadura indarrak murrizten dira ukipen moduarekin alderatuz; horrela, ez da hain bortitza laginarekin eta lagin leunagoak aztertzeko aukera ematen du.

2.6.1. Indar-espektroskopia

Mintz biologikoen propietate elastiko eta mekanikoak garrantzia handia dute mintzek betetzen dituzten funtzio ugaritan. AFM bitartez irudi topografikoak lortzeaz gain, laginaren propietate mekanikoak bereizmen handiarekin ere lor daitezke; indar-espektroskopia (FS, ingelesetik *force spectroscopy*) deritzon metodoa erabiliz.



2.10 irudia. SLBen egonkortasuna aztertzeko AFM indar eta distantziaren kurba tipikoa. AFM punta laginera hurbildu ahala (A), bigeruz lipidikoarekin interakzionatu eta elastikoki deformatzen du (B) geruz hausti eta mika substratua ukitzen duen arte (C). Grafikoan, bigeruz apurtzeko behar den indarra (F_b , ingelesetik *breakthrough force*) gorri borobilduta ageri da.

Indar-espektroskopian, punta laginera hurbiltzen da eta indarra eragiten dio zulatzen duen arte. Amaitzeko, punta berriz atzera bueltatzen da aurretiaz zulatutako leku berdinetik. Punta eta lagina kontaktuan daudenean, indar elektrostatiakoak eta esterikoak gainditzen dira eta lagina deformatzen da puntak geruz bikoitza zulatzen duen arte. Bigeruz zulatzeko behar den indar honi, hau da, mintzak hausti aurretik jasan dezakeen indarrari, F_b deritzo eta hurbilketa kurban, gailur gisa identifikatu daiteke (2.10 irudia). Geruz bikoitzaren lodiera ere, indar-kurba erabiliz neur daiteke.

Lipido geruzen propietate mekanikoak eta peptidoek mintz horien egonkortasunean duten eragina aztertzeko erabili da FSa.

AFM neurketetarako protokoloa


- 1) SLBak 2.1.1.3 *atalean* deskribatzen den moduan prestatzen dira, eta 1 mM Ca^{+2} rekin inkubatzen dira 15 minutuz.
- 2) Mica AFM platinan kokatzen da 100 μL indargetzailearekin (TRIS 10 mM, 137 mM NaCl, 2.7 mM KCl).
- 3) Irudi topografikoak lortzeko hurrengo parametroak erabili dira:
 - a. Puntak: AC-40 (Bruker, Billerica MA, AEB)
 - b. Aplikatutako indarra: 0.5 nN
 - c. Eskaneatzeko modua: Ukipen modua
- 4) Fb-a lortzeko hurrengo parametroak erabili dira:
 - a. Puntak: SNL-10 (Bruker, Billerica MA, AEB)
 - b. Aplikatutako indarra: 10 nN
 - c. Eskaneatzeko modua: Ukipen modua
 - d. Z abiadura: 0.1 $\mu\text{m/s}$, 1 $\mu\text{m/s}$ eta 10 $\mu\text{m/s}$

2.6.2. Molekula bakarreko FS

FS bidezko neurketen izaera kuantitatiboa dela eta, AFMa oso tresna erabilgarria bilakatu da proteina domeinuen destolespena aztertzeko eta baita, hartzaile/ligando arteko loturak hausteko behar diren indarrak zehazteko.

Teknika honen bidez sentikortasun handiz neur daiteke bi molekulen arteko lotura hausteko behar den indarra; horietako molekula bat puntara itsatsita dagoelarik eta bestea, laginaren gainazalean txertatuta.


Hartzaile eta ligando baten arteko FS bidez elkarrekintzak neurtzeko ohiko saio batean, molekula batez funtzionalizatutako hegala, laginaren gainazaletik gertu kokatzen da, eta intereseko beste molekularekin funtzionalizatutako gainazaletik gertu kokatzen da bien arteko lotura ematen den arte. Orduan, indarra aplikatzen da lotura hori hautsi arte, haustura indarra lortuz.



2.11 irudia. Molekula bakarreko FS ohiko esperimentu baten eskema. AFM punta funtzionalizatua gainazalera hurbiltzen da **(A)** piezoaren laguntzarekin eta, **(B)** laginarekin kontaktuan jartzen da. Puntak laginaren gainazala ukitzean, hegala laginaren aurka bultzatzen da alde zurratik ezarritako indar zehatz bat lortzen den arte; era honetan, molekula arteko interakzioa edo lotura ematen dela ziurtatzen da. Aurretiaz ezarritako indarra lortzean, hegala hasierako posizioa itzultzen hasten da **(C)**. Puntan funtzionalizatutako molekula arteko interakzio espezifikoak sortzen bada, hegala atzerapenak molekula arteko tentsioaren handitzea eragingo du, azkenik bien arteko lotura apurtzen den arte. Apurketa gertaera honek, aldaketa nabarmena eragingo du indarraren seinalean eta azkenean, hegala jatorrizko kokapenera bueltatuko da **(D)**.

Proposatu izan diren zenbait modelok aukera ematen dute bi molekula arteko loturaren apurketa deskribatzen duten zenbait parametro erazteko. Bell-Evans (2.6 ekuazioa) da, zurrerik, indar espektroan profil lineala erakusten duten lotura gehieneko parametroak erazteko erabiltzen den modeloa. Modelo hau jatorriz, Kramers-ek^{211,212} formulatutako trantsizio-egoeraren teorian oinarrituta dago, non molekula bi egoera nahiko egonkor (lotuta eta askatuta) energia hesi aske (trantsizio-egoera) batek bereizten dituen lotura egoeratik χ_B distantzia jakin batera. Eredu horrek, beti onartu ezin daitezkeen zenbait muga onartzen ditu.

$$F^* = \frac{k_B T}{\chi_B} \ln \left[\frac{r_f \chi_B}{k_{off} k_B T} \right] \quad [\text{Eq.2.6}]$$



2.12 irudia. Molekula bakarreko FS saiometerako datuen analisia. A) *Loading rate* desberdinetarako indar kurbak lortzen dira. **B)** *Loading rate* bakoitzerako haustura indarren histogramak irudikatzen dira eta funtzio Gaussiarrera doitzen dira haustura indar probableenak (F^*) lortzeko. **C)** Bell-Evens grafikoa aurreko pausuan lorturiko F^* -ekin eraikiko da. Azkeneko grafikoa honetako balioak zuzen batera doitzean k_{off} and χ_β parametroak lortzen dira.

Molekulen arteko interakzioaren parametroak Bell-Evens modeloarekin erazteko, hegalaren uzkurdua abiadura desberdinekin, indar banaketak lortzen dira (2.12 A irudia). Indar banaketa horiek, orokorrean, funtzio Gaussiarrera edo Poisson-era doitzen dira haustura-indar probableena (F^*) zehazteko (2.12 B irudia). Haustura indar probableena (F^*), loturaren *loading rate*-aren logaritmo naturalaren aurka irudikatuta, Bell-Evens grafikoa esaten zaio (2.12 C irudia). Bell-Evens grafikoa sortzeko, *loading rate* bakoitzerako haustura indarren banaketa lortu behar da. Kasurik sinpleenean, non ligando eta hartzailearen lotura bakarra neurtzen den, grafikoa zuzen batera doitu daiteke, zeinak F^* -en hazkuntza, *loading rate* logaritmoaren funtzioan erakusten duena. Zuzen batera doitzean lortzen den malda, 2.7 ekuazioaren berdina da, non χ_β energia minimotik trantsizio egoerara dagoen distantzia, k_β Boltzmann-en konstantea eta T temperatura diren.

$$\text{Slope} = \frac{k_B T}{\chi_\beta} \quad [\text{Eq. 2.7}]$$

$$k_{off} = \frac{r_{F=0} \chi_\beta}{k_B T} \quad [\text{Eq 2.8}]$$

2.6 ekuazioak, F^* , \ln *loading rate*-ren aurka irudikatuz, F^* eta *loading rate*-aren logaritmo naturalaren arteko erlazio lineala aurreikusten du. k_{off} eta χ_β parametroak, Bell-Evens grafikotik lortutako zuzenaren ekuazioaren maldatik, jatorriko ordenatutik eta 2.8 ekuaziotik lor daitezke.

Puntaren funtzionalizaziorako protokoloa

- 1) Hegalak kloroformoaz garbitzen dira lehenbizi eta plasma-garbigailu batean oxigenoarekin ondoren (normalean, O₂ % 80ko potentziaz 5-10 minutuz) edo ozono-garbigailu batean 15 minutuz.
- 2) % 5 3-aminopropildimetiletoksisilano (3-APDMES) disoluzioa etanolean (etOH) prestatzen da. Lehenik, etOH sartzen da eta gero 3-APDMES gehitzen da.
- 3) Hegalak % 5 3-APDMESeko disoluzioan sartzen dira eta 10 minutuz inkubatzen dira.
- 4) Aminofuntzionalizatutako hegalak, etOH-z eta miliQ-z (x3 bakoitza) garbitzen dira eta jarraian lehortzen dira.
- 5) Aminofuntzionalizatutako hegalak, 30 minutuz sartzen dira 80 °C-tan dagoen labean, erdi irekita dagoen Petri plaka batean.
- 6) Hegalak sodio boratozko disoluzio batean sartzen dira (pH 8.5-9), eta ordubetez inkubatzen dira RT edo ON 4 °C-tan.
- 7) Hegalak % 1eko glutaraldehidoan (amina primarioen bidezko funtzionalizaziorako) edo maleimidan (zisteina libreen bidezko funtzionalizazioarako) sartzen dira eta 30 minutuz inkubatzen dira. Ondoren, PBS-z garbitzen dira.
- 8) Hegalak lehortzen dira eta 50 µL proteina soluzioarekin (0.2 mg/mL proteina) guztiz estaltzen dira eta gutxienez ordu batez inkubatzen dira edo, 4 °C-tan gau osoz.
- 9) Hegalak % 0.01 BSA duen soluziora transferitzen dira eta 30 minutuz inkubatzen dira.

Molekula bakarreko FS AFM neurketetarako protokoloa

- 1) SLBak 2.1.1.3 atalean deskribatzen den moduan prestatzen dira, eta 1 mM Ca^{+2} rekin inkubatzen dira 15 minutuz.
- 2) Mica AFM platinan kokatzen da 100 μL indargetzailearekin (TRIS 10 mM, 137 mM NaCl, 2.7 mM KCl).
- 3) Datuak lortzeko hurrengo parametroak erabiltzen dira:
 - a. Puntak: MLCT-BIO-tik D eta E hegala (Bruker, Billerica MA, AEB).
 - b. Aplikatutako indarra: 0.2 nN.
 - c. Z abiadura aldakorra: 0.1 $\mu\text{m/s}$, 2 $\mu\text{m/s}$ eta 10 $\mu\text{m/s}$
 - d. Ukipen denbora aldakorra: 0.5 s, 1 s, 2 s, 5 s

Funtzionalizatutako AFM puntak ezin dira lehortu, bertan itsatsitako molekula kaltetu daitekeelako.

2.7 BIOLOGIA ZELULARRA: ZELULEN INFEKZIO ETA BIRUSEN NEUTRALIZAZIO SAIOAK

Anti-MPER antigorputzek GIBaren infekzioa inhibitzen dute birusaren eta zelula ostalariaren mintzen arteko fusioa blokeatuz. Fab 10E8ak eta bere aldaerek birusaren infekzioa blokeatzeko duten gaitasuna, gure laborategian prestatutako zelulen sarreraren inhibizioan oinarritutako saioan frogatu ziren. PsV andui desberdinak antigorputz kontzentrazio zehatzekin inkubatu ostean, CD4 eta CCR5 hartzailak adierazten dituzten TZM-bl zelulak infektatzeko gaitasuna zehaztu zen.

2.7.1. Pseudobirusen ekoizpena

HEK293, giza enbrioiaren giltzurrun (*Human Embryonic Kidney 293*) zeluletatik eratorritako hazkuntza lerroa da. Zelula-lerro honen aldaera batek, 293T zelulak, SV40 T antigenoa dauka, eta SV40 jatorria, transfektatutako plasmidoen kromosomaz kanpoko erreplikazioa baimentzen duena. HEK293T zelulak, 37 °C-tan eta % 5 CO₂ kontzentrazioarekin mantentzen dira, % 10 behi fetuaren gazurrez, aminoazido ez esentzialez (1:100), sodio pirubatoz (1:100) eta penizilina/estreptomizina antibiotikoez (1:100) osatutako *Dulbecco's Modified Eagle's Medium* izeneko hazkuntza medioan.

GIB-1ean oinarritutako pseudobirusak (PsV) ekoizteko, HEK293T zelulak JR-CSF-ren Env genea kodetzen duen plasmido (Jamie K. Scott irakasletik jaso) batekin transfektatu dira kaltzio fosfatoaren metodoa erabiliz. Plasmido hau hurrengo bektoreekin batera transfektatzen da: pWPXL-GFP eta pCMV8.91 (Patricia Villacek (CSIC) emana). GFPa duen plasmidoa LTR eta Ψ sekuentziak ditu, zelularen genomari GFP-DNA txertatzeko gaitasuna ematen diotenak. pCMV8.91 plasmidoak aldiz, ez ditu bi sekuentzia horiek eta gainera, Vpu, Vpr eta Vif gene biralak mutatuak ditu infektatzeko gaitasuna duten ondorengoen eraketa eragozteko.

PsVak ekoizteko protokoloa

- 1) 4.5×10^6 HEK293T zelula erein egiten dira DMEM medioa duen hazkuntza plater batean.
- 2) 20 ordu igarotakoan, hazkuntza medioa, berri bategatik aldatzen da.
- 3) Hurrengo tranfekziorako soluzioak prestatzen dira eta 0.22 μ M filtroetatik pasaratzen dira:
 - a. A soluzioa: CaCl₂ 250 mM
 - b. B soluzioa: NaCl 140 mM, Na₂HPO₄·2H₂O 1.5 mM, HEPES 50 mM, MiliQ H₂O, pH 7.05.
- 4) Zelulak transfektatu egiten dira
 - a. 3 μ g pHXB2, 10 μ g pWPXL eta 18 μ g pCMV8.91 nahasten dira A soluzioaren 1.3 mL-rekin.

- b. A eta DNA soluzioa duen hodia leun-leun nahasten den bitartean, B soluzioaren 1,3 mL gehitzen dira tantaz tanta. Agregatuak osatzeko minutu batez itxaroten da.
 - c. Nahasketa tantaka gehitzen da platerreara gainazal osoa estali arte.
- 5) Transfekziotik 48 ordu igaro ondoren, partikula biralak gainjalkinetatik bereizten dira, medioa pipeta batez jasoz. Medioa 5 minutuz zentrifugatzen da 3.000 rpm-tako abiaduran, eta birusak dituen gainjalkina 0.45 μ m-ko filtro baten bidez pasarazten da zelula-hondakinak kentzeko.
- 6) Gainjalkina 70000 xg-tan 2 orduz eta 4 °C-tan zentrifugatzen da. Zentrifuga hodian azpialdean, % 20 sakaroadun disoluzioaren 3 mL gehitzen dira, iragazki gisa jardungo dutenak eta azkenean kontzentratutako partikula biral puruak lortzen dira.
- 7) Gainjalkina baztertzen da eta 50 μ L PBS hotza gehitzen zaio pelletari. Pelleta leunki bersuspenditzen da 30 minutuz 4°C –tan dagoen irabiagailu batean.
- 8) Laginak jaso eta -80°C-tan gordetzen dira.

2.7.2. Neutralizazio saioa

Birusen infekzio gaitasuna eta antigorputzen neutralizazio potentzia determinatzeko, PsVak eta TZM-bl itu zelulak erabili dira. TZM-bl zelula lerroa, HeLa zelula lerro bat da, JC.53 zelula lerrotik eratorria, zeinak CD4 eta CCR5 hartzaile eta kohartzaileen kantitate handiak modu egonkorrean ekoizten dituen. TZM-bl zelula lerroa, JC.53 zelulei GIB-1aren sustatzaile baten menpe dauden luziferasa eta β -galaktosidasa geneak integratuz lortu zen eta GIB-1en andui asko eragiten dituzten infekzioaren aurrean oso sentikorrak dira. Zelula lerro berezi hau, 37 °C-tan eta % 5eko CO₂-an DMEM hazkuntza medioa modifikatuarekin (M* medioa) mantentzen dira. M* medioari, beroaz inaktibatutako % 10eko FBSa, aminoazido ez-esentzialak (1:100), sodio pirubatoa eta penizilina/estreptomizina antibiotikoak gehitu zaizkio.

Purifikatutako PsV-en infekzio gaitasuna determinatzeko, hauen diluzio seriatuak TZM-bl zelulekin inkubatzen dira. Jarraian, 10E8 Fab-aren eta honen aldaeren neutralizazio potentzia zehazteko protokolo zehatza jarraian deskribatzen da.

Neutralizazio saioa

- 1) 50 μ L PBS antigorputz edo antigorputzik gabe, 96 putzuko plaka batean, PsV-en 50 μ L-ekin inkubatzen dira ordu batez antibiotikorik gabeko M* medioan.
- 2) TZM-bl zelulak jaso, zentrifugatu eta % 20 antibiotikoak eta 30 μ g/mL DEAE-dextranoak dituen M* medioan bersuspenditzen dira. 11.000 zelula putzuko gehitzen dira eta 48 orduz inkubatzen dira.
- 3) M* medioa berri batez aldatzen da.
- 4) 24 ordu igarotakoan zelulak jaso egiten dira, 100 μ L tripsina eta 200 μ L PBS putzuko gehituz.
- 5) Infektatutako zelulak kuantifikatzen dira fluxu zitometriaz.

Antigorputzen neutralizazio potentzia kalkulatzeko, fluxu zitometriaz lortutako GFP zelula positiboen (zelula infektatuen) kopuruaren murrizketa determinatzen da.

Antigorputzen potentzia konparatzeko, IC₅₀ balioa erabiltzen da, hau da, antigorputz bakoitzak infekzioaren % 50a blokeatzeko behar duen kontzentrazioa. Balio hau lortzeko, neutralizazio portzentaia, antigorputzen kontzentrazioa alderatuz eraikitako grafikoak erabili dira.

2.8 TEKNIKA IMMUNOLOGIKOAK

2.8.1. Untxien immunizazioa

Immunizazioa txerto potentzialak aztertzeko erabili ohi den metodoa da; izan ere, diseinatutako immunogeno batek antigenoa ezagutzeko eta infekzioa blokeatzeko gai diren antigorputzak sorrarazteko gai den ikusteko aukera ematen du.

Immunizazioaren ostean, ELISA, Western Blot edo beste teknika batzuk erabili ohi dira immunizatutako animalien serumetan antigenoaren aurkako erantzuna dagoen ikusteko eta horrela, txertoaren garapenerako formulazio egokia den ebaluatzeko.

Immunizazio-protokoloa egokia aukeratzeko zenbait faktore hartu behar dira kontuan. Lehenik eta behin, funtsezkoa da immunogeno egokia aukeratzea, proteina zein peptidoa izan daitekeena, antigorputzen ekoizpena eragiten duen epitopoa ordezkatzeko duena. Immunogenoa orokorrean, adjuvante batekin konbinatzen da, sistema immunea aktibatzen duen konposatu batekin alegia. Azkenik, oso garrantzitsua da immunizatze erabiliko den animalia-eredua aukeratzea.

Tesi proiektu honetan, eta gure laborategiak alde aurretik erabilitako immunizazio-protokoloa jarraituz, untxi eredu hautatu zen. Izan ere, untxien immunizazio-protokoloa oso finkatua dago eta gainera, beste animalia eredu batzuekin alderatuz, sortzen dituen antigorputzek CDRH3 begizta luzeak izaten dituzte, anti-MPER antigorputzen ezaugarri nabarmenetako bat dena ^{12,178,213}.

Lan honetan eginiko immunizazioetarako, osaketa lipidiko desberdineko liposomak erabili dira MPER-TMD domeinutik eratorritako peptidoak sistema immunera eraginkorki aurkezten direla ziurtatzeko. Horrez gain, A lipidoa gehitu da LPFetan adjuvante moduan erabiltzeko, liposomak ere immunogeniko bihurtuz. A lipidoa toxikotasunik gabeko

endotoxina lipopolisakaridoaren zati bat da, bakterio Gram negatiboetatik eratorritakoa. Ikusi izan da adjuvante hau erabilgarria dela GIB-1aren antigorputz neutralizatzaileen ezaugarriak imitatzen dituzten antigorputz poliklonalen ekoizpenean ²¹⁴.


Immunizazio protokoloa

- 1) LPFak 2.1.1.2 atalean azaldu bezala prestatzen dira, 0.4 mg/mL-ko, 0.3 mg/mL-ko eta 0.2 mg/mL-ko peptido kontzentrazioekin eta kasu guztietan, 1:50eko peptido-lipido erlazioarekin (mol:mol). % 0.25 A lipidoa adjuante gisa gehitzen da lipido nahastean.
- 2) LFPak gau osoz liofilizatzen dira.
- 3) Zeelanda Berriko untxi zuriak honela immunizatzen dira:
 - a. Gure immunogenoa ezagutzen duen antigorputzik ez dagoela egiaztatzeko, immunizatu aurreko untxien serumaren lagin bat hartzen da, kontrol negatibo gisa erabiliko dena.
 - b. Immunogenoen laginak berhidratatzen dira 1 mL H₂O MiliQ erabiliz eta larruazalaren azpitik injektatzen dira hainbat lekutan: 0, 21 eta 42 egunetan. Lehenengo inokulazioak antigenoaren 0.4 mg ditu, bigarrenak 0.3 mg eta azkenak 0.2 mg.
 - c. Azkeneko immunizaziotik 15 egun igarotakoan, untxien odola lortzen da.
- 4) Odola ordu betez koagulatzen uzten da giro tenperaturan eta ON 4 °C-tan. Koagulatu den frakzioa baztertu egiten da eta seruma 30 minutuz 1000 xg-tan zentrifugatzen da eritrozitoak kentzeko. Gainjalkina alikuotatu egiten da eta -20 °C-tan gordetzen da.

2.8.2. ELISA ez-zuzena

ELISA (ingelesetik, *Enzyme Linked Immunosorbent Assay*), peptidoak, proteinak edo antigorputzak bezalako substantzia solugarriak detektatu eta kuantifikatzeko teknika kolorimetrikoa da. Antigenoa (itu molekula) 96 putzuko plaka bat bezalako gainazal solido batean inmovilizatzen da eta jarraian, entzima erreportari bati lotutako antigorputz bat gehitzen da. Azkenik, erreakzio kalorimetrikoa gertatzen da eta antigorputzen bidezko ezagupen espezifikoa, plaka irakurgailu batean absorbatzia neurtuz lortzen da.

Tesi honetan, ELISA saioak erabili dira untxien immunizazioaren ondoren lorturiko serumean dauden antigorputz poliklonalen espezifikotasuna aztertzeko eta 10E8 Fab-en eta honen aldaeren eta LPFen arteko ezagupena zehazteko.




2.13 irudia. Antigorputz poliklonalen ekoizpena eta identifikazioa. Zeelanda berriko untxiak LPFekin immunizatzen dira eta antigorputz espezifikoen ekoizpena ELISA ez-zuzenaren bidez identifikatzen da.

ELISA ez-zuzeneko protokoloa

- 1) Peptidoak DMSOtan (1.37 μ M) disolbatzen dira edo lipido besikuletan (0.5 mM) errekonstituitzen dira eta 96 putzuko plaketan immobilizatzen dira (100 μ L putzuko).
- 2) Putzuak PBS indargetzaileaz (200 μ L/putzu) garbitzen dira eta 2 orduz % 3 BSA duen PBS-z (300 μ L/putzu) blokeatzen dira.
- 3) Putzuak PBS indargetzailez (200 μ L/putzu) birritan garbitzen dira.
- 4) 10E8 Fab-a eta bere aldaerak edo untxien serumaren diluzioak (100 μ L/putzu) 4 orduz inkubatzen dira %1 BSA duen PBS indargetzailean.
- 5) Putzuak, PBS indargetzaileaz (200 μ L/putzu) birritan garbitzen dira.
- 6) Fosfatasa alkalino entzima duen antigorputz sekundarioaren 100 μ L/putzu (1:1000 diluzioan) gehitzen dira eta 50 minutuz inkubatzen da.
- 7) Putzuak PBS indargetzaileaz (200 μ L/putzu) hiru aldiz garbitzen dira.
- 8) 0.1 M glizinan, 1mM $MgCl_2$, 1mM $ZnCl_2$ disolbatutako 4-nitrofenil fosfato disodio gatz hexahidratoaren 5 mg (50 μ L/putzu) gehitzen dira eta 30 minutuz inkubatzen da.
- 9) Erreakzioa NaOH 3M erabiliz (50 μ L/putzu) geldiarazten da eta erreakzioaren produktua, 405 nm-ko absorbantzia neurtuz kuantifikatzen da.

Chapter 3.1

***CONFORMATIONAL PLASTICITY
UNDERLIES MEMBRANE FUSION
INDUCED BY AN HIV SEQUENCE
JUXTAPOSED TO THE LIPID
ENVELOPE***



3. RESULTS

3.1 Conformational plasticity underlies membrane fusion induced by an HIV sequence juxtaposed to the lipid envelope

ABSTRACT

